

Lurralde burujabetza

UTOPIA PLANIFIKATZEN SEGITZEKO PROPOSAMEN BAT



Argitaratzailea: Hiritik At
Testuak: Hiritik At
Argazkiak: Bira produkzioak
Diseinua eta maketazioa: Lulumka
Inprenta: Ikusgraf
Lege Gordailua:
LG D 1348-2022

hiritik-at@hiritik-at.eus
www.hiritik-at.eus



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**
El futuro de Gipuzkoa

Lurralde burujabetza

UTOPIA PLANIFIKATZEN SEGITZEKO PROPOSAMEN BAT



Honako testu hau 2020-2022 urteen artean Hernani Burujaberen baitan izandako esperientziaren baitan ondu da. Hiritik At koop.ek idatzi duen arren, kolektiboki eraiki dugun praktikaren sistematizazio eta teorizazioa da aurkituko duzuna.

Horregatik eta xahutzen gaituen eredu bio-zida gainditzeko egiten duzuen apustu ausartarengatik eskerrik zintzoenak: Maite Lan Koop, Emagin, Zabalduz koop, HENASE, HerriLur, InguTek koop, ENHERKOM koop, Goiener koop, EHKOM koop, Izarkom Koop, Ereñotzuko auzo udala, Ekhilur koop., Bira Koop, Berria elkarte, Iturola elkar-lan sorguneko ekintzaile denei, kultur arteko plaza feminista, Aztiker koop, Gislán koop, Txakur Gorriak, Sagarreta elkarte, Bidea elkarte eta Hernaniko Udaleko arduradun eta langile guztiei.

Orain arte egindako bidean bizi izan ditugun momentu gogor zein gozoetan sustengatu gaituzuen inguruko denei, mila esker. Zaintza harremanek eskaintzen diguten babes gunerik gabe, ezer gutxi da-eta posible.

Sorkuntza kolektiboa izan den bezala, izan bedi kolektiboa ere esku artean duzun testu horren erabilera; kolektiboa da eta utopia hemendik bertatik eguneratzeko erronka.

*«Arrazoibidearen ezkortasuna
borondatearen baikortasunarekin
uztartzen asmatu beharra dugu»*

(A. Gramsci)

Aurkibidea

04
Hitzaurrea

08
1. Lurralde
burujabetza

14
2. Lurraldea:
disputa gorpuzten
den dimentsioa

20
3. Hernani
burujabe. Kronika
labur bat

42
4. Burujabetza[k.]

50
5. Gobernantzatik
planifikaziora

60
* Epilogo:
boterearen
geografia
burujaberantz



Hitzaurrea

Bizi gaituen errealismo kapitalistaren arabera, egun errazagoa da gizateriaren amaiera imajinatzea, kapitalismoaren bukaera irudikatzea baino. Duela hamarkada batzuk hedatu zen TINA (There Is No Alternative) horren fase berantiarra ari gara bizitzen: ipar globaleko herrialdeen kolapso ekonomiko, energetiko eta ambientalaren atarian gaudela diote gero eta ahots kualifikatuagoek; hego-globaleko herrialdeen desjabetze prozesua modu planifikatu, egituratu eta legalean sakontzen den bitartean.

Jarraian irakurriko duzuen horri guztiari Hernanitik erantzuteko egiten ari den saiakera da, Lurralde Burujabetza gisa izendatu dugun proposamen teoriko eta politikoa, praktika zehatzen bidez eta toki konkretu batetan gauzatzeko ahalegina, Hernani ahalik eta Burujabeen izateko entsegua: praktikatik labaintzen den teorizazioa; teorizaziotik jausten den bide-orri praktikoa; ortzimuga zibilizatorio berri bati ekarpena egitea helburu duen erronka kolektiboa. Hemen eta orain frogatzen ari den hipotesi baten kokapena, azalpena eta kontzeptualizazioa, alegia.

Bidearen hasieran egiten genituen galderei ematen goazen erantzunen bidez osatzen goazen ikuskera azaltzera goaz:

Nola erantzun erronka zibilizatorio globalei eguneroko bizitza partekatuak garatzen diren tokitik?

Nola artikulatu lurraldeko gaitasunak trantsizio ekosozal(ista) batetan?

Nola sakondu agenda demokratikoan eta demokratizatu ekonomia?

Ez gara 0tik hasten. Boterearen historiak erresistentziaren historia erditzen du, eta eremu sozialean, ekonomikoan eta politikoan garatzen diren antagonismoak eta alternatibak dira proposatzera goazenaren ezinbesteko baldintza; ezinbesteko orubea.

EH-n badaukagu esperientzia metatua arlo sozial, ekonomiko eta instituzionalean. Hori guztia norabide partekatu eta estrategikoan jartzea da jarraian irakurriko duzuenaren nahia:

1go artikuluan egun bizi dugun krisi sistemikoaren nondik norakoa kokatzen da, berau definitu eta osatzen dituen gatazka-eremuen perimetroa zehaztu, eta balizko ezein alternatibak askatu behar dituen korapiloak identifikatzen dira.

2. artikuluan gure proposamenaren oinarri teorikoak

zedarritzen dira. Lurraldea kapitalaren balorizazio prozesuaren edukiontzi hutsa izateari utzi eta metaketa prozesu horren edukia izatera pasa dela argudiatzen da. Ondorioz, hipotesi teoriko hori zuzena bada, kapitalak bizitzari deklaratu dion gerra horren disputa eremu nagusia lurraldea bera dela aldarrikatzen dugu, burujabetza politikoa, ekonomikoa eta sozialaren arteko sintesia Lurralde Burujabetza deritzogun kontzeptu teoriko, politiko eta praktikoan gorpuzten dela arrazoituz.

3. artikuluan Hernani Burujabe Herri Proiektuaren azalpena egiten da, egindakoaren kronika forman. Horretarako, prozesuaren nondik norakoa, mugari nagusiak, edukitako zailtasunak eta sortutako espazio eta proiektuak azaltzen dira. Prozesuan ateratako irakaspenek burujabetzen eta planifikazioaren gaineko hausnarketak ekarriko dituzte.

4. Hernaniko esperientzia praktikotik, soberania eta burujabetzen gaineko hausnarketa egingo dugu. Lurralde burujabetzaren talaia teorikotik, burujabetzen ulerkera berri bat behar dugula ondorioztatuko dugu. Pluralean izendatuko duguna, eguneroko bizitzari atxikia eta demokrazia ekonomikoari lotua dena. Ikusiko dugunez, burujabetzaren ulerkera horrek agenda zehatza emango dio lurraldegintza burujabeari.

5. artikuluan Lurralde Burujabetzaren metodo politikoaren gainean hausnartuko dugu: Planifikazio demokratikoaren erronkaren inguruan, alegia.

Hernanin jarriko dugu hausnarketaren orubea. Hemendik argi ikusiko dugu “gobernantza” neoliberalismoaren kudeaketa eredu dela. Marko ideologiko eta praktiko gisa, gobernantza gainditu beharreko nozioa da. Horri Planifikazioa kontrajarriko diogu, etorkizuna elkarrekin pentsatu eta gauzatzeko metodo demokratiko gisa. Behetik gorako planifikazioa (edo “planifikazio burujabea”) zehazteke dagoen kontzeptua da. Horregatik Hernanitik ikasitakoa teorizatzen saiatuko gara, planifikazio demokratikoak eduki beharko lituzkeen ezaugarrien bila. Amaieran argi ikusiko dugu defendatzen dugun lurraldegintzaren metodo politikoa dela planifikazioa; epe ertaina, termino integral eta burujabeean diseinatu eta gauzatzeko kudeaketa eredu demokratikoa, hain zuzen ere.

Hemen esango dugun ezer ez da sinatzaileengandik sortu. Hemen esango ditugunak esanda daude eta hemen proposatuko ditugunak abian daude jada. Guk horiek guztiak barnebildu, lurralderatu eta artikulatu besterik ez dugu egin; guk horiek guztiak gauzatzeko bidean jarri, eta sistematizatu besterik ez dugu egin.

Hurrengo orriek egindakoa hedatzeko eta errepikarazteko gidaliburu bat izan nahi dute. Hurrengo orriak elkarrekin pentsatu, elkarrekin egin eta elkarrekin esateko gonbidapena dira. Elkarrekin pentsatu, elkarrekin egin eta elkarrekin esaten ez ditugunak, gure kontrara pentsatu, gure kontrara egin eta gure kontrara esango dira eta ■





Lurralde burujabetza


“EL DESARROLLO DESARROLLA LA DESIGUALDAD.”¹

Egun bizi dugun krisi sistemikoaren nondik norakoa kokatzen da, berau definitu eta osatzen dituen gatazka eremuen perimetroa zehaztu, eta balizko ezein alternatibak askatu behar dituen korapiloak identifikatzen dira.

1. GALEANO, E. (1985). Las venas abiertas de América Latina. Mexico: SIGLO XXI.

Egungo eredu sozioekonomikoari, kapitalismo hetero-patriarkal arrazista eta kolonialari, giza-aurpegia jartzea ez da posible, ez herri ez eta eskualde bakar batean ere. Ez hemen, ez han. Ez gaur, ez bihar. Eta ez da iritzi politiko bat, eremu guztietatik iristen zaizkigun ebidentziak pentsamendu kritikoarekin aztertzetik begiztatzten zaigu. Aspaldi da kapitalismoak gerra deklaratu ziola bizitzari, aspaldi da kapitalismoaren garapenak bizitza posible egiten duten oinarriak agortzen dituela.

Aspalditik datorren guda horrek bost gatazka-eremu nagusi dauzka



Gatazka ekologikoa

Ezinezkoa da ekonomiaren hazkunde etengabea etengabe hazten ez den oinarri bio-fisiko baten gainean. Joan zen uztailaren 29an agortu genituen Lurrak urte baterako eskaintzen dizkigun baliabide guztiak. Egun horretatik aurrera erabiliko ditugunak beste latitude batzuetan bizi direnen edo/eta etorkizuneko belaunaldiengandik eskuratuko ditugu. Horrela, agerikoa zaigu lehengaien eskasia orokortuaren aroan sartzen ari garela. Energia eskasia, mineralen eskasia eta ur eskasia gaur egun pairatzen ari garen fenomenoak dira, ez bihar etorriko direnak. Deshazkunde materiala ez dago eztabaidagai, eztabaida da nork eta zertan txikitu behar duen: gutxi batzuen pribilegioak mantenduko dituen erregimen ekofaxista bat ezarriko den ala guztion ongizatea bide-eta-helburu edukiko duen sistema eraikitzeke gai izango garen.




Gatazka patriarkala

Ekonomia feministak argiki erakusten duen moduan kapitalismoa ez da posible lan erreproduktiborik gabe, historikoki -eta gaur egun ere- emakumeek egiten dituzten eta ordainduak ez diren lan horiek gabe. Kapitalaren metaketa ordaindua ez den lan eskerga izugarri baten bizkar gertatzen da (kalkulu askoren arabera lan erreproduktiboek BPG-aren %40a ordezkatzeko lukete lan-ordutan). Horrek emakumeen egiturazko menderakuntza eragiten du, dimentsio ekonomikoan, sozialen, politikoan, kulturalen eta sinbolikoan gauzatzen den azpiratzea. Gure esku gelditzen da gainditzea eremu produktiboa eta eremu erreproduktiboaren arteko bereizketa eta eraikitzea bizitzaren menpe kokatuko den eredu ekonomiko, sozial eta politiko bat.




Gatazka ekonomikoa

Gutxi batzuek gero eta askoz ere gehiago daukate, askoz ere gehiagok gero eta askoz ere gutxiago daukaten bitartean. Aberastasunaren kontzentrazioa eta pobretzearen orokortzea, gainera, egiturazko krisi baten baitan ari da gertatzen. OCDE-k berak onartzen duen bezala inbertsio produktiboen errentagarritasun indizea beheraka doa etengabe, eta 2060. urtearte ez da aurreikusten indize horrek gora egingo duenik berriz ere. Zentzu horretan bada, krisi ekonomikoa egiturazkoa dela ikus daiteke, eta beraz, guztiontzat bizigarriak diren bizi-baldintzak bermatu nahi baditugu, ezinbestekoa da eredu ekonomiko hau eraitsi eta berri bat eraikitzen hastea.



Gatazka Koloniala

Kolonizazio prozesuak eta kolonialismoak egiturazko harremana izan du kapitalismoaren sorkuntzarekin eta egiturazko harremana du egun kapitalismoaren garapenarekin. Horrela, alde batetik, egun ekonomiaren garapenerako ezinbestekoak dira periferiako herrialdeetatik arpilatzen diren baliabide energetiko, mineral, biologiko eta naturalak. Bestetik, zentroko herrialdeek ezartzen dituzten migrazio eta muga-politikak direla eta periferietako herrialdeetara deslokalizatu ezin daitezkeen lan horiek guztiak periferiatik datozen langile migratu ultra-prekarizatuek betetzen dituzte, hala nola, zaintza lanak edo nekazaritzan egiten diren lan erdi-esklaboak. Esan gabe doa periferiako herrialdeetatik arpilatzen diren baliabide horiek guztiak eta periferiako langile ultra-prekarizatuek egiten dituzten lan horiek guztiek gabe kapitalismoa ere ez litzatekeela posible izango, eta beraz, kapitalismoa da egun periferiako herrialdeen eta langileen dominazioaren arrazoi nagusia.



Gatazka (Geo)politikoa

Kapitalismoaren egiturazko krisi horrek ondorioak ditu eremu politikoan, bai estatuetan bertan eta bai nazioarteko harreman politikoetan. Batetik aipatu dugun pobretze prozesu orokortuak orain arte beren burua klase ertaintzat zutenen proletarizazioa eragin du, eta horrek, klase ertainaren bizi espektatibak zalantzan jarri ditu. Horrela demokrazia formalaren oinarrian dagoen itun soziala ezbaian jarri da, eta ondorioz, eskuin muturraren gorakada egiturazkoa da zentroko herrialde gehienetan. Beste aldetik, baliabide energetiko, mineral, biologiko eta naturalen agorpenak estatuen arteko gatazka inter-inperialistak azkartu ditu baliabide horien arpilatzeari begira. Horrenbestez, egun bizi dugun ezegonkortasun geopolitikoaren oinarrian kapitalaren metaketarako ezinbestekoak diren baliabide horien guztien jabetzaren inguruko gatazka dago.

Hori guztia ikusirik, argi dago bidegurutze baten aurrean gaudela: zirt edo zart egiteko garaia ailegatu zaigu

Betiko norabidean jarraitu ezkerreko bidearen mugara iritsi garela ikus dezakegu: larrialdi klimatikoa, ondasun naturalen agorpen orokortua (peak all) desberdintasun soziala, ekonomikoa eta territoriala, zaintzen krisia, krisi ekonomikoa, osasun krisia etab...argiki erakusten diguten moduan.

Beste norabidean seinalerik ez duen bide baten irudi lausoa daukagu. Aurretik inork egin ez duen bide bat. Bide hori hedapen eta garapen maila ezberdina duten hainbat ekimen ekonomiko dago osatua, eta orain arte bederen, modu isolatuan eta desegituratuan agertu ohi diren ekimen ekonomikoak dira. Hainbat sektoreetan burujabetza aldarrikatzen duten ekimenak izan arren, inpaktu-gaitasun urria izaten duten esperientziak dira aipatu isolamendu eta desartikulazioa dela eta. Jarraian egingo dugun proposamenak, bada, ekimen ekonomiko horiek guztiak lurralde mailako planifikazio estrategiko baten baitan artikulatu eta eredu ekonomikoaren zentroan

Lurralde Burujabetzak ekiteko modu zehatz bat proposatzen du: sektore estrategikoen jabetza publiko, planifikazio komunitario eta kudeaketa kooperatiboan oinarrituko diren burujabetza sektorialak (elikadura, energia, finantzak, lana, teknologia, kultura...) sustatzea, horiek lurraldean artikulatzea, eta horrela, eskala ezberdinetan gauzatuko diren burujabetze prozesuak hauspotzea.

kokatzea bilatzen du. Proposamen horri Lurralde Burujabetza deitu diogu, eta horren helburua da eredu ekonomiko, politiko eta sozial berri bat eraikitzea.

Proposatzen dugun eredu horrek espezializazio produktiboa alde batetara utzi eta **ahalik eta eredu dibertsifikatuena eta erresilienteena eraiki nahi du.** Hau da, Lurralde Burujabetza lurralde zehatz batek dituen behar eta desioak kapitalismotik at asetzeko estrategia bat da: lurraldea osatzen duten dimentsioak demokrazia ekonomiko eta politikoaren kontrolpean jarriko ditu. Horrela, ekonomiaren demokratizazioa eragingo du lurraldearen burujabetza maila handitzearen bidez.

Eredu horrek, benetan antagonikoa izan nahi duen eredu bat eraiki nahi badu honako baldintzak bete beharko ditu

Jendarte guztiaren behar eta desio materialak asebetetzeko anbizioa eta gaitasuna eduki behar ditu. Sistemaren marjinetatik atera eta zentroan kokatzeko gaitasuna eduki behar du.

Gorago zerrendatu diren **gatazka horiek sortzen dituzten arazoei irtenbidea emateko gaitasuna** eduki behar du.

Jabetza pribatuaren zentzu komuna gainditu, eta logiko kolektiboak, parekideak eta berdinzaleak ezarri behar ditu.

Horrenbestez, eraikitzen saiatzen ari garen ereduak jendartearen burujabetza esparruak zabaltzeko eta sakontzeko helburua du, biztanleen autoeraketa sozial, ekonomiko, kultural, politiko eta territoriala hauspotuz. Hau da bidea: burujabetza sektorialak sustatzea eta, horiek lurraldean artikulatuz, lurralde burujabeak eraikitzea. Auzo mailan hasi, Euskal Herriko burujabetza prozesua gauzatu eta herrien autodeterminazio politikorako baldintza materialak eraikitzea, alegia ■





Lurraldea: disputa gorpuzten den dimentsioa

IT'S THE SPACE, STUPID! ¹

Lurraldea kapitalaren balorizazio prozesuaren edukiontzi izateari utzi eta metaketa prozesu horren edukia izatera pasa dela argudiatzen da. Ondorioz, hipotesi teoriko hori zuzena bada, kapitalak bizitzari deklaratu dion gerra horren disputa eremu nagusia lurraldea bera dela aldarrikatzen dugu, burujabetza politikoa, ekonomikoa eta sozialaren arteko sintesia Lurralde Burujabetza deritzogun kontzeptu teoriko, politiko eta praktikoan gorpuzten dela arrazoituz.

1. It's the economy, stupid izan zen 1992an Bill Clintonen hauteskunde ^okanpainako lelo ez ofiziala, baina erabiliena. Guk lelo hori eraldatu dugu, ekonomia (kapitalistaren) muintetako bat espazio/Lurraldearen ekoizpen eta kudeaketa prozesua direla ikustarazteko.



Artikulu honen helburua da egiten ari garen proposamenaren oinarri teoriko, kontzeptual eta politikoak ezartzea.

Burujabetza kontzeptua zuzenbidera eta politikara egon da lotua historikoki

Ezein jendartek bere burua gobernatzeko duen eskubidea adierazten du. Azkeneko urteotan ekonomiaren esparrura zabaldu da, eta horrela hedatu dira elikadura eta energia burujabetza bezalako kontzeptuak: herriek beren elikadura edo energia politika propioak egin eta sektore hauetan dituzten beharrak, merkatuak agintzen dituen arauetatik haratago asebetetzeko duten eskubidea adierazten du. Guk ordea horiek guztiak barnebildu eta haratago doan kontzeptua proposatu nahi dugu: Lurralde Burujabetza. Horrela bada jarraian azaldu eta garatuko dugun moduan, egun lurraldea da dimentsio politikoa, ekonomikoa eta soziala kapitalaren metaketa helburu duten prozesuen baitan artikulatzen dituen. Gure proposamena bada, lurraldea kapitalaren metaketarako giltzarri izatetik, bizitzaren hedapenerako giltzarri bihurtzean oinarritzen da, eta horretarako, jarraian (lurralde) burujabetze prozesuak sustatu behar direla argudiatuko dugu.

Espazioa zentrala da kapitalaren balorizazio eta metaketa prozesuan

Batetik kapitalak berezkoa duen lanaren banaketa, eta bestetik, ekoizpena eta kontsumoa toki

ezberdinetan gertatzea dira zentralitate horren funtsezko arrazoiak. Kapitalaren balorizazio prozesu espazializatuak bihurtzen du espazioa lurralde. Izan ere kapitalak bere beharren arabera moldatzen du espazioa, espazioa kapitalaren-lurralde gisa egituratuz, ekoizpenaren banaketak (sozialak eta espazialak) eta ondorioz gertatzen den espezializazio produktiboak eragiten duen kapitalismoaren geografia propioa dela eta: batetik lanaren banaketak lurraldeen espezializazioa eragiten du ekoizpen-fase edo sektore batzuetan, eta horrek, lurraldeen arteko Garapen Geografiko Desberdina (estatu mailan eta nazioartean) gauzatzen du. Garapen Geografiko Desberdina dago lurraldeen artean existitzen diren desberdintasun ekonomikoen atzean; mundu mailako zentro-periferia egitura gauzatzen du produktibitate maila ezberdinak dituzten lurraldeen arteko kapitalaren balorizazio prozesu eta zirkuituak ehuntzerakoan. Espazio abstraktua, kapitalaren-lurraldean (multieskalatua) konkretizatuz.

Bestetik, metaketa fase bakoitzak espazioaren egituraketa propioa sortzen du eta eskala ezberdinetan gauzatzen diren lurralde funtzionalak eratzen ditu. Horrela, metaketa fase fordistari estaturen eskalan ardazten zen lurralde-egitura bat zegokion, zeinetan, estatuta bera zen politika keynesiarren bidez lurraldeen arteko desorekak eragotzi eta garapenerako lurralde-eredu planifikatu bat sustatzen zuena. Globalizazio neoliberalaren metaketa faseari ordea eskala supranazionalean eta subnationalean artikulatzen diren lurralde-ereduak dagozkio eta lurraldearen garrantzia zentrala bihurtu da lehiakortasuna sustatzerako orduan. Horrela, batetik lurraldea

Lurraldearen kapitalizazio prozesua ez da fenomeno natural bat

Oso kontrara indar eta botere harreman aldakorren ondorio da, dimentsio politiko, ekonomiko eta sozialean gertatzen diren disputa horien guztien ondorio, hain zuzen ere. Ezinbestekoa da beraz, dimentsio politiko, ekonomiko eta sozialean gertatzen diren disputa horien talka-eremuak identifikatu eta zehaztea, horietako bakoitzean garatu beharreko estrategiak eta ekintzak zehazte aldera:

Dimentsio politikoan: Erabaki markoen zentralizazio, urruntze eta elitizazioa, eta erabaki-markoen deszentralizazio, gerturatze eta herriratzearen artean dagoen talka.

Dimentsio ekonomikoan: Sektore estrategikoen privatizazioaren eta sektore horien publikazio eta sozializazioaren artean dagoen talka.

Dimentsio sozialean: gizarte-joera indibidualista eta lehiakorraren eta joera kolektibo eta kooperatzaileen artean dagoen talka.

Disputa eremu horiek, bada, barnebildu ditzakegu gobernantza eredu publiko-privatuaren eta planifikazio publiko-komunitario-ekonomikoaren artean existitzen den antagonismo orokorraren baitan.

Horrela, kapitalaren metaketa prozesuaren mesedetan garatzen da gobernantza eredu publiko-privatua, zeinetan administrazio publikoaren zeregina den eremu pribatuaren negozioentzako aukera-baldintzak sortzea: bai sektore estrategikoen privatizazioaren bidez; bai baliabide publikoen kudeaketaren lagapenaren bidez edota lurraldearen merkantilizazio prozesuen bidez.

bihurtu da inbertsioak erakartzeko aldagaia (kapital metaketaren edukiontzia), eta bestetik, lurraldearen merkantilizazioa bihurtu da (kapital metaketaren edukia) globalizazioari dagokion metaketa fase finantzarizatuaren oinarri materiala.

Hain modu abstraktuan agertzen zaizkigun funtsezko arrazoi horiek, baina, ondorio erreal eta materialak dituzte gure lurraldeen eta jendartearen egituratzean. Horrela eta orain arte esan dugunaren arabera, batetik, kapitalaren balorizazio prozesuak bihurtzen badu espazio abstraktua lurralde konkretu, eta bestetik, lurralde (kapitalizatu/konkretizatu) hori bada kapital metaketaren eduki (merkatuan salerosten dena) zein edukiontzi (nazioarteko kapital fluxuak lurralde zehatzetan fijatze aldagaia), kapitalismoaren erraietatik eratortzen den lurraldearekiko alienazio hori izango da egun eredu endogeno, auto-zentratu, demokratiko eta iraunkorra sustatzea eragozten digun arrazoi nagusia. Horrenbestez, espazioa modu orokorrean eta lurraldea modu zehatzean bihurtu dira ezein eraldaketa posible egiteko disputa esparru nagusi; klase borrokaren guda zelai zein helburu. Hau da, lurraldearekiko des-alienazioa eta ondorioz gertatzen den Lurralde Burujabetza bihurtu dira edozein emantzipazio prozesu politiko, ekonomiko eta sozialaren funtsezko muin eta ardatz, ezinbesteko bitarteko eta helburu.

Gure proposamena, bizitzaren hedapena helburua duena, planifikazio marko publiko-herritar-ekonomikoak sortzean ardazten da, zeinetan, planifikazio-markoa osatzen duten eragile bakoitzak rol eta zeregin espezifikoak dauzkan:



Herritarrak

Ekonomiaren planifikazioa egitearen ardura dauka, komunitate bakoitzak sektore bakoitzean dituen behar eta aspirazioak identifikatuz, eta hauek asebetetzeko jorratu beharreko prozesuak eta erabili beharreko baliabideak zehaztuz.



Administrazio publikoak

Sektore ekonomikoen gaineko publikazio prozesuak sustatu behar ditu, ekoizpenerako baliabideen jabetza eskuratuz. Bestetik, erabaki markoak deszentratu eta deszentralizatu behar ditu, ekonomiaren planifikazio demokratiko-herritarra egitea ahalbidetuko duten ekonomiaren planifikaziorako kontseiluak sortuz, eta hauei boterea eta baliabideak transferituz.



Ekonomikoak

Publikatuak izan diren ekoizpenerako baliabideak, komunitatearen planifikazioak zehaztutako norabiderantz dinamizatze betebeharra du, beti ere modu parte hartzaile eta parekidean, eta sortutako produktu eta zerbitzuen unibertsaltasuna bermatu behar du. Sortutako gaidikina komunitatera bueltatu behar du, komunitateak gaidikin horren inbertsioaren inguran erabaki ahal izan dezan.



Ekonomiaren planifikaziorako **marko publiko-he-rritar-ekonomiko horrek bizitza posible egiten duten sektore estrategiko guztietan ezartzeko anbizioa eta gaitasuna dauka**, hala nola, elikadura; energia, zaintza; telekomunikazioak, etxebizitza, lana, finantzak, moneta...etab.

Sektore estrategikoen gaineko burujabetza prozesuak sustatzeak, bada, sektore horietako bakoitza osatzen duen **balio-kate guztian eragitea** esan nahi du, hau da, sektore bakoitzean beharrezkoak diren baliabideetatik hasi eta ekoizpena, banaketa, eta merkaturatzea planifikazio eredu honen baitan gauzatzea errepikatzen da. Horrela, balio katearen fase bakoitzean ekoizpenerako baliabideak publikatzea, horien gaineko planifikazio demokratikoa egitea eta publikatuak izan diren ekoizpenerako baliabide horiek, komunitateak egindako planifikazioaren arabera modu parte hartzaile, parekide eta kolektiboan dinamizatzea da proposatzen duguna. Modu horretan sektore bakoitzean sortzen den balioa sektorean eta lurraldean bertan geldituko dela bermatu; sektore bakoitzaren baitan esku-hartzeko gaitasuna biderkatu eta sektore horren gaineko burujabetza maila gero eta handiago lortzeko gaitasuna eskuratzen da progresiboki.

Azkenik, **sektore bakoitzaren burujabetze prozesuak bata bestearekin artikulatzea gelditzen da**. Gure proposamenean hori **moneta sozial**

«Lurralde Burujabetzak, modernitate kapitalista hetero-patriarkal eta koloniala inpugnatzen duen eta antagonikoa izateko anbizioa duen eredu da.»

eta propio baten bidez gauzatzen da, sektore bakoitzean sortu den balioa beste sektore burujabeetan sortutako balioarekin elkarbanatu eta partekatu ahal izan dadin. Atzerago esan bezala, kapitalismoaren erraietatik eratorzen den lurraldearekiko alienazio horrekin bukatu, eta, eredu ekonomiko sozializatu, auto-zentratu, demokratiko eta iraunkorra sustatzea ahalbidetuko digun eredu eraiki ahal izan dezagun.

Horrenbestez, **Lurralde Burujabetzak eredu ekonomiko, politiko eta sozial propio bat proposatzen du**, modernitate kapitalista hetero-patriarkal eta koloniala inpugnatzen duen eta antagonikoa izateko anbizioa duen eredu. Tokiko eskalatik, nazioartera hedatzeko gaitasuna duen eredu, emantzipazio prozesu globalari ekarpena egitea helburu duen bide-orri praktiko bat planteatzen duen eredu, alegia ■





Hernani burujabe

KRONIKA LABUR BAT

“Aurretik alarmak piztuta bazeuden ere, osasun krisiak egin du guzti hau leherrarazi. Ikusten genuen bazela momentua, benetan bestelako politika batzuk egiteko. Herritarrekin egin beharrekoa. Legegintzaldi batetik harago doan zerbait da eta nola bihurtu hau herri osoa edo ahalik eta sektore gehien inplikaturako dituen proiektu batean. Eta erantzun dauden behar ezberdinei”

ITSASO LEKUONA, UDAL GOBERNUKO KIDEA

“Arrazoiak esternoak izanagatik ere guk egunerokoan bizitzen ditugu -zibilizazio kapitalistaren krisiaren- eraginak eta hor dago -Hernani Burujabe- martxan jartzeko arrazoi nagusi bat (...) ez hori bakarrik, tradizioz ere herri honen borroka izpirituak, askatasunerako grina, herri aske bat izateko gogoak hor dago eta hori ziklikoa izanagatik ere beti dauka eraberritzeko eta berriz sortzeko gaitasuna”

AXEL AIZPIOLEA, HERNANI BURUJABE HERRITAR TALDEA



Ongizatea eta burujabetza esparruak zabaltzea helburu duen planifikazio publiko-herrikoi ariketa ausarta da Hernani Burujabe. Ekonomia demokratizatzeko saiakera, tokiko indarrak bilduz demokrazian sakontzeko apustu irmoa da. Labur, Lurralde Burujabetzarako pausoak emateko egitasmoa da Hernani Burujabe.

Ezaugarri ezberdineko 15 auzotan bizi diren

20.362 biztanleko hiri batez ari gara. Batzuk bertan jaioak, beste asko handik eta hemendik etorriak. Hirian bizi dira gehienak baina udalerririk badu landa eremu zabala. Gehienek, definitzen zaila den "hirugarren sektorean" dute enplegua, nahiz eta Hernanin industria jarduera esanguratsua dagoen. "Donostialdea" den metropoli saiakeraren eraginari lotua dagoela ukazina da. Udalerrira igaro nahi duen AHT-aren obra amaiezina errealitate honen beste frogar bat da. Haatik, gertuko eskalei begira, esanguratsua den lorpen bat ere badu Hernanik: Ereñotzuko auzo-udala. Itziar-ekin batera gisa honetako instituzio Gipuzkoar bakarra.

Agerikoa denez, Gipuzkoako udalerrri hau ez

dago mundutik at. Hernani dominazio sistemaren egiturek zeharkatzen duten lurraldearen parte da. Klasismoak, patriarkatuak, arrazismoak edota nazio-jazarpenak indar egituratzaileak dira udalerrri honetan ere.

Burujabetzen bidea ireki den honetan, gatazka horien gaineko kontzientzia osoa dago: Interes-

talkak existitzen dira, egiturazko kontra-esanak hor daude eta Hernani Burujabe ez da horiek tokitik gainditzeko promesa. Haatik, dominazio horien aurrean lurraldetik modu burujabeagoan posizionatzeko artikulazio zelaia izan daiteke.

Lurralde burujabetzak, prozesu gisa ulertuta, mugimendu zabalagoekin konektatu ezean ez du sistema gainditzeko gaitasunik izango.

Horregatik, modernitate kapitalista gainditzea xede duen sindikalismoarekin, mugimendu feministarekin, ekologista edota anti-arrazistarekin sinergiak bilatzea beharizan etiko eta praktikotzat hartu da Hernanin. Era berean, prozesua indargune berri bat eraikitze bidea izan daitekeela begiztatu da. Korrante emantzipatzaile horien plaza komuna datekeen lurralde burujabea; trantsizio post-kapitalista planifikatu eta gauzatzeko aliantzen esparru berri bat eskaini dezake Lurralde Burujabetzak.

Hernani Burujabe prozesu hasi berrian, Burujabetzak pluralean izendatuko diren eguneroko agenda izango dira.

Horregatik, gure bizitzaren sustengurako oinarritzko prozesuen gaineko herri demokrazia eraikitzea izango da asmoa. Publikoa, herritarra, kooperatiboa... behar diren formak erabiliz, beti planifikazio demokratikoaren talaia komuna ahortzi gabe. Elikaduran, energian, zaintzan, telekomunikazioetan... burujabe izateko grina izango da planifikazio bateratu horri eduki zehatza emango diona.

Honez gain, Hernani Burujabe ilusio, sentimendu eta afektuen mobilizazio ariketa bat dela ikusiko dugu. Egiatzko prozesu bat, zeinetan pertsonak

eskuz esku ari diren gauzatu nahi duten etorkizuna planifikatzen. Horregatik, epe luzeko diseinuak gaurkotasuneko beharrekin ondo lotu behar dira; lurralde egitasmoak mugimendu sozialen agendei erantzun diezaien; herritargoaren behar eta desirekin lotu dadin.

Amaitzeko, boterearen eta antolaketaren auzia zentrala ari da izaten prozesuaren garapenaren baitan. Herritarrei planifikazio estrategikoetan leku egin nahi bazaie, boterea beste modu batean banatzeko egitura eta funtzionamenduetan asmatu beharko da. Hots, botereren geometria berri baterantz jo beharko dugu. Gobernantzaren markoa gaindituta, planifikazioak bestelako arkitektura politikoak behar dituela ondorioztatuko da prozesuan, eta horiek probatzeko bidea irekiko dute indar publiko-herritarrek. Ekarpena egin nahi duen orori lekua egitea, lurraldeko agente moten lankidetzatza sustatzea (ekonomiko, instituzional eta herrikoi), konplexutasuna kudeatzeko malgutasun nahikoa duen egituraren asmatzea, edota gobernu-integraltasuna bermatzea izango dira gobernu-ekosistema hori praktikan jartzeko gako batzuk.

Deskribatu dugun guzti hori posible ote den ere, baleko duda da. Hernanin hasi da jende talde bat eta sektore jakin batzuen gainean lanean aipatu asmoak muturreraino eramateko asmoz. Izan ere, zibilizazio krisiaren bidegurutzea eko-faxismo eta tokian-tokiko ekosistema bizigarrien artekoa bada, lurraldean indartsu egitetik hasi behar dugula ebatzi da Hernanin.

Hats luzeko lurralde prozesua hasi besterik ez da egin, baina gauza asko jazo dira honezkeru. Honen kronika 3 zati nagusitan banatuko dugu.

Lehena 2020-ko irailetik 2021eko urriak batera doana da. Ikasturte horretan barne mailako lehen eztabaidak eta planifikazioak egingo dira. Bigarrena 2021 urriak 1etik 2022 urtarrilera doana da. Hernani Burujabe publiko egin eta zabaltzen hasten denetik horren gaineko hausnarketa eta egonkortze ariketara. Ariketa hori "adoste prozesua" izango da. Hori izango da azken zatiaren prozesu eroalea, 2022ko urtarriletik irailera gauzatuko dena.

Krisiak eta hipotesi baten lurreratzea (2020-2021.10.1.)

Lehen epealdi hau egitasmoaren erditze fasea da eta berau publiko egin arte luzatzen da. Pandemia garaian aldaketa sistemikoaren gaineko ideiak indartzen dira Hernaniko Udalean. Beharrezko aldaketa hori udal eskalatik eta trantsizio eko-sozialaren aterkian kokatzen da hasiera batean. Lehen momentutik aipatu prozesua lurraldearekin egin nahi dela azpimarratuko da. Horrela agente sozial, ekonomiko eta instituzionalekin lurralde eztabaida abiatuko da Hiritik At-en bide-laguntza estrategikoarekin. Lehen planifikazio ariketa intuitibo horretan sortuko da sakontze demokratikoa eta burujabetzak ardatz dituen Hernani Burujabe egitasmoa. Marko estrategikoaren eztabaidak lehen plangintza bat ere emango du aldi berean: bidea abiatzeko burujabetza sektoreen eta proiektuen zehaztea. Era berean aldaketak ekarriko ditu eremu ezberdinetan: Udal Gobernu Taldea ber-egituratu egingo da eta Herritar Taldea sortuko da.



Abiapuntua: Eredua gainditzeko behar eta hipotesiak

Covid-19 ak ekarritako egoerak ideia bat atzera-ezin egin du 2020 urtean zehar: Sistema sozio-ekonomiko honen baitan gure biztanle eta lurraldeen bizitza duinek ez dute bermerik. Hortaz, hori gainditzea jo-mugan duen paradigma antagonistak eraman behar ditugu aurrera. Hernaniko udal gobernua ideia hori bere egin eta udal estrategiaren lehen lerroa ekartzeko hautua egin du 2020ko ekainerako.

Krisiaren testuinguruak energiaren, elikaduraren eta zaintzaren eremuetatik abiatzea exijitu du. Esku-hartze konkretuez gain, lurraldegintzarako paradigma berri bat eraiki nahi da. Horregatik metodoa hasieratik zainduko den elementua izan da. Burujabetza sektore horiei “denon” artean heltzeko bideak irekitzea hasierako erronka bat izango da. Izan ere, 2020-2021 ikasturte hasieran lurralderik ez duen lurralde egitasmo bat dugu. Horren aurrean, nola marraztu elkarrekin tokikotasunetik abiatzen den trantsiziorako bide-orria? Lurraldea bada subjektu, eraman dezagun galdera prest egon daitezkeen agente herritar eta ekonomikoen artera.

“Hernani Burujabe, zer bat baino, nola bat da” esan izan da maiz prozesuaren eztabaida guneetan. Hau da, lurraldea egiteko metodo bat da. Hastapenetako hipotesietan ezaugarri hauek esleitzen zaizkio trantsizio eko-soziala aktibatu nahi duen metodo honi: 1) Planifikazio publiko-herritarra du zentroan eta 2) Burujabetza sektorialak dira lurraldegintza horretarako agenda. Estrategiari, konkretzioa eta proiektuak emango dizkion taktika, alegia.

Estrategiaren hirukia erabilia (zer, nola eta antolaketa) hasierako hipotesi estrategikoa honela formulatu da:

- **Zer:** Zeru-muga estrategikoa. Lurralde eztabaidaren baitan, ongizatea, burujabetzak eta sakontze demokratikoa ekarri nahi dugun etorkizun horren zutoinak direla argitzen joango da. Hori tokiko eskalatik eraikitzea ezinbestekotzat joko da, nahiz eta baldintzapen makroez kontzientzia hartuko den (zibilizazio krisia). Horrela lurralde artikulazioa ere bide eta helburu bilakatuko da. Azken horrek, herritarren, instituzioen eta agente ekonomikoen arteko artikulazio formak bilatuko ditu.
- **Nola:** Zeru-muga horretara hurbiltzeko praktika konkretuak. Hemen burujabetzen paradigmak zentraltasuna hartuko du. Hau da, funtsezko eremuetan burujabetza estrategiak ireki eta horiek proiektu konkretuen bidez eraikitzea xede estrategikora hurbiltzeko modua izango da. Adibidez, energia komunitateak energiarekiko atxikipena erraztuko du (ongizatea), burujabeago egingo gaitu eremu horretan (erabakimena ekonomian) eta proiektu demokratikoen bidez gauzatuko da (irabazi asmorik gabeko kooperatiba). Era berean lurralde artikulazioa gauzatzeko aukera ematen du proiektuak: Udala eta kooperatiban antolaturiko herritarrak egitura/estrategia beraren baitan egongo dira lankidetzan
- **Antolaketa:** Irizpide nagusien artean dago “lurraldea antolatu beharra”. Hemen, lurraldea eraikitzeke dagoen subjektu gisa ulertu behar dugu, lurralde burujabetzaren parametroetan. Subjektua trantsizio eko-sozialaren planifikazioarekin bat datozen agente instituzional, herritar eta ekonomikoek osaturiko aliantza da. Hots, zerumuga estrategikoa partekatzen duten agenteek osatua da. Horiek proiektu burujabeen eraikuntzan txirikordatuko dira. Era berean planifikazio publiko-herritarraren metodo politikoa aitortuko dute lurralde estrategia definitzeko bide demokratiko gisa. Hortik harago, ez dago baldintzarik hasieran antolaketa formaren zehaztapena egiteko.

Lurraldeak, lurralde estrategia definitzen du. Lehen planifikazio ariketa

Zeru-muga eztabaidatzeko lehen marko gisa lehen txosten bat osatu da: "Hernani Burujabe liburu zuria". Oraingoz Hernaniko Udal Gobernuak eta Hiritik At koop.-ek sinatzen dutena.

Aipatu marko estrategikoa lurralde agenteekin

landuko da: 1) ekonomikoak, 2) herritarrak eta 3) udal gobernuak. Burujabetza sektoreekin eta herri mugimenduarekin egin da lanketa nagusia. Marko estrategikoaren gaineko erreakzioak anitzak izan dira; zenbait segituan liluratu dira, beste askok "goitik beherako logika" edo "abstraktuegi" izatea leporatu diote hasiera puntuari. Eztabaida mamitsuak izan dira hasieratik: autonomia/zentralismoa, herri mugimenduak/instituzioak, herrikoitasuna/elitismoa edota iraultza/erreformismoa poloen artean doazen iritzi eta tentsio puntuak izendatu dira. Hala ere bada nahikoa adostasun dema eman den lehen zirkuluetan. Aldeko masa kritikoa gorpuzten hasi da eta eztabaida kalera iragazten ari da. Hernani Burujabe? Zurrumurru bat baino ez da oraindik, baina badator.

Marko-estrategikoaren eztabaidarekin batera, nola

ere definitzen ari da. Hau da, burujabetza eremuak eta proiektuak "sukalde laneko" fasean sartu dira. Har dezagun Energia Burujabetzaren adibidea. Goiener eta Udalak eginiko azterketa batetik abiatuta, Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko aukerak daudela ebatzi da 2020 ikasturte hasieran. 2021eko urtarrila, udalaren babesarekin hernaniarrei espazio bat ireki zaie: "Energia krisia. Eta Hernanin zer?". Lehenik hitzaldia antolatu da: Biteri kultur etxea bete egin da. Badira baldintza herritarrak beraz. Energia berriztagarrien komunitatearen hazia izango den Talde Motorra osatzeko lehen bilera deitu da segidan; 15 pertsona inguru bildu dira Iturola espazioan; energia burujabetzak hasi du bere bidea eta metodoa modu praktikoan ari da gorpuzten: eremua lantzeko adostasun herrikoi-publiko zabala

dago (energia burujabetzaren markoan), udalak babesarekin eta prozesua laguntzeko baliabideak jarri ditu (Goiener, Ingutek koop. eta Hiritik At koop. kontratatu ditu prozesua laguntzeko) eta herritar-eraketa ekonomikorako prozesua martxan jarri da lehen bilkura honetatik aurrera. Eraketa prozesua konplexua izango da, izan ere, komunitategintza eta enpresagintza uztartzen ditu. Hala ere, Enherkom irabazi asmorik gabeko kooperatiba, zeinetan udalak bazkide kolaboratzaile gisa parte hartuko duen, 2022ko martxoan eratuko da ofizialki.

Beste burujabetza sektoreetan ere baldintzak metatzen ari dira eta egitasmoaren nolakotasuna zehazten ari da.

Elikaduran HENASE sortuko da (ekoizleen elkarte bateratua) eta HerriLur izango denaren hazia landatu da. Era berean, udala lur erosketarekin aurrera doa eta Karabeleko eta Gure-Elikagairekin tokiko sistema ehuntzeko proiektuen ideiak hasi dira lantzen: nekazari eskola, sukaldaritza eskola eta tokiko produktuaren transformazio gunea. Zaintzan Maitelan kooperatibaren egonkortzean ari da lanean, Zaintza Plataformaren prozesua Emagin-ekin batera garatzen ari da, eta AuzoZaintza (bakardade ez hautatuan dauden pertsonentzako akonpainamendu egitasmoa) definitzen hasi da Zabalduz koop.-ekin batera.

"Lurralde planifikazio" ariketa kolektiboa martxan

dago. Izan ere, proiektuen definizioa marko estrategikoaren eztabaidarekin ari da lotzen. Eremu oso mugatuan ematen ari da oraindik, baina etorkizunean gauzatuko den egiteko molde hori pre-figuratu ari da. Momentu honetan, burujabetza sektoretako agenteen, herritarren eta udal-gobernuaren arteko lanketa hirukoitza ematen ari da. Zer eta nola, markoaren eztabaida eta gauzatze bideak batera eztabaidatzen dira askotan; aurkezpenak eta txosten trukaketak etengabeak dira. Oraingoz, planifikazio partekaturiko egiturarik ez dagoenez, Hiritik At-ek lotura lanak egingo ditu: udal plan eta asmoak, jasotzen diren ekarpenak/dudak, kritikak, etab. planifikazio komunean integratzeko eginkizuna izango du.



Estrategiaren hirukia berreskuratuz, antolaketa eremua ahul dago 2021-aren hasieran.

Ziurrenik, pentsatu ez delako baino, baldintza material nahikorik ez dagoelako ekosistema integral bat proposatzeko. Udal gobernuaren zati bat dago honen gainean (zinegotzi denak ez dira engaiatu, teknikariek ez da ezer partekatu eta oposizioarekin ere ez), burujabetza sektoreetan talde sustatzaileak eratzen ari dira eta eremu herritarrean oraindik eztabaida fasean daude. Etorriko dira baldintzak. Hastapen fase horretan, jarraipena (eta ez gidaritzaz), Hiritik At eta Udal Gobernuko 5 kidek osatuko duten espazio batetik emango da.

Horrela bada, heltze puntua ez da oraindik nahikoa eta egitasmoa ez dago "publiko" egiteko moduan

2021eko udaberrian; oraindik ez du "materialitate" nahikorik: eslogan edo herri-marka bat litzateke; asmo "multzo bat". Are gehiago herritarrak interpelatuko ditu "parte-hartzera" baina horiek prozesura gehitzeko organismo-marko planik ez dago. Nora eta nola bideratuko dira Hernani Burujaben murgildu nahi diren herritarrak? ez dago antolaketa/egitura eta funtziona-molde proposamenik. Hala ere, "publiko ez egite honek" tentsioak sortuko ditu zenbait eremutan. Egongo da "sekretismoaz" aritzea leporatuko duenik, herritarrari zor zaion gardentasun faltaz. Apika bai, baina zenbaitek uste dute, atekak ireki baino lehen, agente ezberdinen arteko sukaldeko lan gehiago behar duela egitasmoak; kohesioa, proposamenaren zehaztapena eta antolaketa ahalbidetzeko marko eta mekanismoak diseinatu behar direla plazara jauzi egin baino lehen.

Udal gobernuan ber-antolaketa: kohesioa eta datorrenerako prestatu

Planifikazio herritarrak ezinbestean instituzioaren zentraltasuna gainezkatzea du bide eta helburu.

Beharbada horregatik, tentsioak nabaritzen

hasi dira udal gobernu barruan. Prozesua azkar doa, handiak garatzen ari diren asmoak. Nahiz eta

egitasmoa publiko egin ez den, sortzen ari diren zenbait espektatibek bertigoa eragiten dute batzuegan; horren aurrean arrakala nabaritu da estrategia berriarekin engaiatuak diren eta ez diren zinegotzien artean.

Horri erantzunez, barne kohesiorako prozesu bat egingo da Aztiker koop-en laguntzaz. Hemendik ere, Ehbilduren oinarri sozialarekin egitasmoaren nondik norakoak partekatzeke betebeharra ondorioztatuko da. Hori Herri Batzarraren bidez egingo da. Horren ondotik ekaina-uztailean beste bi saio egingo dira udal gobernuako kide guztiekin 2021-2022 ikasturteari begira jartzeko. Estrategiarekin batera, antolaketa ere jorratuko da.

Barne arrakalak gainditzeko udal gobernuaren baitan 4 lan talde egingo dira.

Talde horien egitekoa, Hernani Burujabe zehar lerro dutela, honako eremuetan udal irizpide politikoa lantzea izango da:

- **Udalgintza Herrigilea:** udal funtzionamendu eta egiturak herritar eta auzoei zabaltzeko estrategiak finkatzeko egitekoa izango du. Teknikari sailburuekin egingo den barne-lanketak pisua hartuko du hurrengo ikasturtean.
- **Herrigintza Udalgilea:** Sortzen ari den herritar taldearekin eta oro-har elkartegintzarekin nola artikulatu hausnartu eta gidatuko duen taldea izango da.
- **Tokiko Garapen Burujabea:** Burujabetzak materializatzeko proiektu konkretuen gainean hausnartu eta udalaren rol-a landuko duen taldea izango da.
- **Komunikazioa:** Zeharkakoa izan arren, duen garrantziagatik talde espezifikoak osatuko da. Barne zein kanpo komunikaziori begirakoa.

Taldeetan, aukeraturiko zinegotziak, Hiritik At eta Tokiko Garapeneko teknikaria egongo dira.

Herritarrak ere martxan

Artean, herritarrekin emandako eztabaiden kariatara **herrigintzatik prozesua sustengatzeko prest dagoen herritarrak biltzen hasi dira.**

Hauek beren egitekoa eremu ezberdinetan kokatuko dute:

Lanketa ideologikoa egitea, formazioa eskaintzea, burujabetza proiektuen herri babesa lantzea, herritarrak engaiatzeko estrategia eta markoak diseinatzea, egitasmoa "auzotzea" edota udalarekin harreman formak definitzea izango dira horietako batzuk.

Planifikazio herritarra zentrorra ekarri nahi duen edozein lurralde-estrategia herri boteretze prozesu bat da.

Erronka zail horri begira, ezinbestekoa da lehen nukleo bat artikulatzea, paradigma berriaren egile eta egiteko molde berrien nukleo hedatzaile izango dira. Horregatik, pertsona bat liberatu da eta egin duen lan horrek ekarri ditu bere fruituak: 80 pertsonatik gorarekin egon da txostena partekatu eta eztabaidatzeko. Behetik gorako planifikazioak botere markoen gainezkatzea esan nahi du: Merkatu edota estatu botereen des-zentratzea herri boterearen bulkadaz. Hori, prozesu konplexua da inolaz ere. Hala ere, hasi besterik ez gara egin eta perspektiba horrekin dabilen lan-taldea hasi da eratzten; proposamena herrian sustraitzen ari da.

Salda on baterako osagaiak prest: Hernani Burujabe publiko egiteko unea iritsi da

2020/21 ikasturtea "sukalde laneko" ikasturtetzat har genezake. Jorratzen lan handia egon da eta ekoiztu dira osagaiak saltsa on baterako. Hernani Burujaberen marko estrategikoa adostu da eta lehen proposamen partekatu bat dugu. Udal gobernua hasierako asmotan indartu egin da eta barne-prozesu bat eman du datorrenari heltzeko. Burujabetza esparru batzuk martxan dira jada (elikadura, energia, zaintzak

eta merkataritza) eta badago asmoez harago doan proposamenik eta herritarrak gonbidatzeko markorik. Planifikazio prozesuan murgildu diren zenbait herritarrek "subjektu herritarra" osatzeko borondatea erakutsi dute eta martxan dira Herritar Taldearekin. Egitasmoak oraindik ere antolaketaren ekosistema definitua ez badu ere, hau osatzen duten agenteen arteko zubi eta konfiantzak eraiki dira.

Eremu askotan Hernani Burujabe zurrumurru bat baina gehiago da honezkero. Publiko egin beharra dago. Denon artean agerraldi eguna adostu da: 2021eko urriaren 1a. Tokia Atsegindegi plaza.

Herri egitasmoa herrira zabaldu. (2021.10.01.)

Urriak 1ean egitasmoa publiko egingo da. Jarraian Herritar Taldeak jardunaldi arrakastatsuek burutuko ditu eta hasierako planifikazioa zabalduko dute. Bestalde aurretik datozen egitasmo burujabeek egonkortu eta zehazteko kurtoa izango dute. Egitasmoa hedatzearekin honen kohesioa lantzeko beharra azalaraziko da. Kontsentsuz, Adoste prozesu bat martxan jartzea ebatziko da, Hernani Burujaberen oinarriak elkarrekin ber-definitzeko. Honekin itxiko da lurraldetze epealdi hori, aipatu prozesuaren irekierarekin.

Aurkezpen bateratua eta Herritar Taldearen bulkada

Urriak 1etik aurrera zirkulu mugatueta eman den planifikazio partekatua zabaldu egingo da.

Atsegindegi plazan, Ta Puntu koop-ekin batera prestatuturiko agerraldian herri prozesu izan nahi duen honen agente ugari hartuko dute hitza: Energia taldekoak, HerriLur, HENASE, Maitelan, Hernaniko Alkate den Xabier Lertxundi, Hiritik At, Berriak merkatarien elkarte eta EkhiLur-eko kideak. Bakoitza

bere eremutik baina aterki komun baten baitan: Hernani Burujabe. Burujabetzak eraikiz hobe bizitzeko lurralde egitasmoa dugu komunean.

Urriak 1ean aurkezpen bateratuaren ostean, Herritar Taldeak antolaturiko jardunaldiak etorriko dira. Urriak 23-24 artean, 100 pertsonatik gora arituko dira burujabetzen gainean eztabaidatzen. Hernanin martxan diren proiektuak ezagutzeko aukera izango da eta bide berriak aztertzeko kanpo ereduak izango ditugu (Onaro, Izarkom koop., Lurgaia fundazioa eta San Agustin koop.).

Planifikazio herritar baten oinarriak dira, deliberazio bidezko etorkizunaren diseinu herrikoa. Izatez, burujabetza esparru berriak irekitzeko konpromisoak hartuko dira, etorkizun hurbil batean ernaltzen hasiko direnak.

Adibide batzuk: bio-aniztasunaren eremua lantzeko Sagarreta ekimena sortuko da (2022.05.10). Etxebizitzaren arazoari heltzeko ekimen herritarra jarriko da martxan. Lehenik eta behin arazoari heltzeko bide burujabeak aztertuko dituzte. Aurrerago etorriko da plan zehatzaren definizioa. Kultura burujabetza herritik lantzeko diagnostikoa abiatuko da zeinetan “eszenari” begirako arreta berezia egongo den Azpeitiko San Agustinen eredu buruan dela.

Burujabetza eremu berriak irekitzeko borondatea antolatzeaz gain, Herritar Taldeak egitasmoaren kohesioari begira inizatiba itzela hartuko du. Izan ere, jardunaldien arrakasta ikusirik “Burujabetza Foroa” markoa eratuko du: Herritar taldearen deialdiz bilduko dira burujabetza sektore ezberdinetan dabiltzanak. Helburua proiektu-burujabetzen sinergiak topatzea eta batez ere egitasmoaren oinarria herritarren artean zabaltzea izango da. Aipatu foroa maiz bilduko da, hilabetean behin, ikasturtean zehar eraginkortasun nabariz.

Honez gain ez dio masa kritikoa lantzeari utziko eta ekimen ugari antolatuko ditu 2021-

2022 ikasturtean zehar. Azpimarragarriak Azoka Burujabea (2022.02.19) eta Esperientzia Burujabeak ezagutzen” zikloa (2022.06.8-10).

Egitasmo burujabeak: Indartu, egonkortu eta zabaldu

Bestalde aurreko ikasturtean martxan jarritako **ekimen herrikoi-publiko-ekonomiko batzuk ere indartu eta plazara aterako dira.** Hats luzekoa da burujabetzen hedapenaren estrategia. Ildo honetan, Hernani Burujabe, “berrikuntza etengabea” baino, mantentze eta indartze ariketa etengabea da.

Adibide batzuk. Elikaduran HerriLur km0-ekologiko denda martxan jartzeko lanketa indartuko da. Elkartek tokiko merkatari batekin akordioa egingo du bere elikagai denda “eraldatzeko” elkartearen baitan. Transformazio gunerako lanak ere aurreratuko dira (espazioa, traba administratibo-eskumenekoak, proiektuaren zehaztapena, etab.). Gunea eramateko aukera onena insertzio kooperatiba bat dela ebatziko da eta hau sortuko da Agintzari koop eta Gure Elikagairen elkarlaneraz. Enherkom kooperatiba formalizatuko da, zabaldu eta auto-kontsumo partekaturako proiektuak definituko ditu Udalarekin batera. AuzoZaintza egitasmoaren inplementazioa hasiko da, bakardade egoeran dauden eta baliabide gutxi dituzten 3.adineko pertsonak lagundu eta akonpainatzeko zerbitzu publiko berria. Telekomunikazioen eremua behetik baino, udaletik hartuko da: landa inguruari zerbitzua ematen hasiko da eta zuntza zentroan nola eraiki landuko da. Azken hauen lanketak Euskal Herri mailako proiektu baten sustatzaile izatera eramango du Hernani: EHKOM, Euskal Herrian sare ireki, libre eta neutralak eraikitzeke kooperatiba integrala.

Azken adibide horrek modu praktikoan erakutsiko du hasierako hipotesien artean dagoen ideia: Burujabetzen eraikuntza ez da behetik gorako logika metakor soilean emango, gehienetan eskala



Ekimen isolatuen logika gainditzeko, estrategia komunak landu

Sektorekako burujabetza egitasmoen bilakaera arrakastatsua ezinbesteko da: Estrategia baieztatzen baitu praktikan eta burujabetzen sakontzea da bere horretan. Nahiz eta momentu horretan inpaktu gutxi duten (populazio osoa kontuan hartzen badugu), bizitza on baterako azpi-egitura sozio-ekonomikoaren hastapena dira. Hau da, bizi baldintzetan zuzenean eragiteko egitasmo konkretuak.

Bestalde, prozesuaren hedapen momentu honetan kohesioa lantzea ezinbestekoa da. Maila estrategikoan, proiektugintzan eta baita antolaketan ere. Eremu hori ez zaintzeak, lurralde estrategia bateratu baterako aukerak itxiko lituzke. Hau da, ekimen isolatuak edukiko genituzke baina planifikazio publiko-herritar baterako baldintzak lantzeari utziko genioke.

Horri begira, garrantzitsua da azpimarratzea orain arteko ekimenek adostu dituzten printzipioak. Bakoitzak bere talde sustatzailearen eta sektorearen autonomia duen arren, honako irizpideei lotua dago.

- **Planifikazio komuna:** Denak, aurrez elkarrekin landuriko planifikazio baten baitan doaz aurrera; marko estrategikoa ezagutu eta babestuz. Planifikazio konplexu hori demokratikoki diseinatzeko marko eta baldintzak ez daude oraindik, baina horrantz jo behar da.
- **Lurraldea proiektu bakoitzean erreplikatu:** Ekimen burujabe bakoitzean lurralde agente ezberdinak daude. Udala, herritarrak eta erpin ekonomikoa, Enherkom-en, HerriLur-en, HENASE-n edota AuzoZaintzan bezalako egitasmoetan daude. Horrela artikulazioa maila makroan ez ezik, proiektuetan ematen den lankidetzaren baitan ere konkretatzen da.

- **Gobernu ekosistema eta aitortza komuna:** Ekimen burujabea gidatzen duen talde sustatzailea Mahai Sektorialetan artikulatuko da udalarekin. Era berean, beste sektoreekin eta herritarrekin Burujabetzen Foroan batuko da. Lotura organiko horrek, ekimenak egitasmo beraren baitan errekonozitzea ekartzen du. Honez gain baliabide komunikatibo bateratuak egongo dira: Egitasmo burujabeek diskurtso-estetika komunak izango dituzte kanpo komunikaziorako.

Irizpide horien gainean zehaztaperen kontzeptual eta metodologikoak egiteko momentua 2022ko urtarrilean begiztatuko da. Prozesua hedatzen ari da, Hernani Burujabe toki askotan definitzen da eta nahitaezkoa ikusiko da koherentzia lanketa bat abiatzea. Hausnarketa horrek “Adoste prozesu” bezala ezagutuko dugun planifikazio ariketa ekarriko du.

Gaur arteko planifikazio prozesu sakonena: Adoste prozesua (2022.01-2022.05)

Egitasmoaren heltze puntu eta lehen hedapen faseak planifikazioa elkarrekin berpentsatzeko beharra ekarri du. Burujabetza eremuak zabaldu ditugu eta orain gehiago gara. Beraz, egiteko bat da planifikazio estrategikoa elkarrekin berrikustea.

Herritar Taldea izan da hori argien ikusi duena 2022ko urtarrilaren hondarrean. Udal Gobernu Taldeak bat egin du analisiarekin eta Hiritik At-engana joko da barne prozesua dinamizatu dezan. Horrek eztabaida markoa zedarritzen duen dokumentua onduko du, orain arte egindakoa kontuan hartzen duen “Hernani Burujabe. Adoste Prozesua” testua, alegia.



Lurraldea eztabaidara konbokatuko duen prozesu hori, 4 eremuren gaineko adostasunak lantzeko erabiliko da:

1. **Zeru-muga eta diskurtsoa:** Ados eta eroso gaude planteatzen den estrategiarekin? Eta hau azaltzeko erabiltzen den diskurtso eta terminologiarekin?
2. **Burujabetza eremu eta proiektuen berrikuspena:** Zeru-muga horretara heltzeko, ontzat jotzen ditugu ireki diren burujabetza sektoreak? Eta hauetan lantzen ari diren proiektu zehatzak? Proposamenik al dago?
3. **Gobernu ekosistema:** Egitasmoa guztion artean gobernatzeko zein egitura behar dugu? Zer funtzionamendu? Nola uztartu ekimenen autonomia eta egitasmoak behar duen artikulazio-integrala?
4. **Adierazle sistema:** Prozesua neurtzeko eta zeharka landu beharrekoak ganoraz landu ahal izateko behar ditugun aldagaiak (euskara, feminismoa, anti-arrazismoa eta anti-klasismoa). Ze adierazle mota behar dugu? Nola eraikiko dugu sistema? Ze erreferentzia ditugu?

“Hernani Burujabe. Adoste Prozesua” dokumentua abiapuntutzat hartuz, ardatz hauek honako eragileekin landuko dira otsaila eta maiatza bitarte.

«Sektorekako burujabetza egitasmoen bilakaera arrakastatsua ezinbesteko da: Estrategia baieztatzen baitu praktikan eta burujabetzen sakontzea da bere horretan.»

Udal barneko lanketa: teknikariak engaiatu eta oposizioarengana hurbildu

Udalaren barruan oposizioa eta sailen arduradunak barnebildu nahiko dira prozesuan.

Oposizioko alderdiekin ez da adostasun osorik egongo, bai ordea gerturatze bat. Honen adibidea da udala Enherkom-en sartzeko udalbatzan lorturiko aho-batekotasuna. Era berean, egitasmoaren jarraipenerako batzordearen ideia onartuko da.

Udal teknikariekin aldiz egindako lanketak emaitza nahiko ona utziko du: ia sail denekin landuko da ikuskera, eta sintonia nahiko handia egongo da. Gainera, ekarpenak jasoko dira; sailtako lehentasunak integratuko dira Hernani Burujabereren planifikaziora eta sinergiak landuko dira. Modu zehatzagoan, zenbait teknikari Hernani Burujabeko markoetan txertatuko dira, beren ekarpenak bertatik bertara egiteko. Horrek jarraikortasuna eta askotan berme teknikoa emango die lanketei.

Hernani Burujabe eta udaleko sailen arteko uztarketa lanketa konplexua bada ere, estrategikoa dela iritziko da: Udal politiken lehen lerrora modu iraunkorrean ekarriko bada, teknikariekin (eta hauen sail-planekin) eskuz esku egin beharko baita lan.

Maiatzak 5eko mintegia: Adostasunak berresteko zita

Kontraste prozesuaren azken zita gisa, Herritar Taldeak mintegi bateratu bat antolatzea proposatuko du. Kurtsoa luze doa honezkero, asko dira egindakoak eta gehiago etorkizun hurbilean begiztatzen direnak. Hala ere, 60 lagunetik gora bilduko dira Iturola espazioan otsailean abiatutako prozesuari itxiera elkarrekin emateko.

Bertan "lurraldea" egongo da. Udal ordezkari, teknikari, herritar talde eta ekimen burujabeetako

partaideak bertaratuko baitira. Urriak 1ean genuen aterki komuna asko indartu da zazpi hilabete horietan.

Indartze horren isla, hartu diren pisuzko 2 erabaki dira. Prozesuaren baitan landu eta mintegian berretsi direnak.

- **Sistematika komun bat:** Hernani Burujaben txertatzeko edota burujabetza sektore berriak irekitzeko baldintzak eta prozedimentua adostuko dira.
- **Gobernu ekosistema:** bukatu gabe baino martxan zebilen antolaketa eta gobernu modua aztertu ondoren, ekosistema zehaztuko da. Honen marko nagusiak 4 izango dira: Talde Sustatzaileak, Burujabetza Mahaiak, Burujabetzen Foroa eta Burujabetzen Kontseilua.

Burujabetzen hedapenerako sistematika komun bat

Sistematikaren auzia, erabaki guztiz politiko-estrategikoa da. Hau da, lurralde burujabetzarako ontzat jotzen dugun "praxi"-aren nolakotasuna adieraziko du. Modu batean, marko estrategikoa eta eguneroa lotzen ditu sistematikaren aferak. Planifikazio metodoaren atal gako bat da sistematikarena.

Adoste prozesuaren baitan ebatziko da burujabetza eremuak irekitzeko momentuan, **ezaugarri hauek bete beharko direla:**

- **Masa kritikoa behar da:** Sustengu herritarrekin ireki beharko da edo berau sortzeko estrategia plazaratu beharko du. Ez gara goitiki beherako politika publikoak definitzeaz ari.

Herriaren eta udalaren arteko artikulaziorako proposamena izan beharko du: Burujabetza sektorearen lanketak eremu publikoa eta eremu

herritarra artikulatzeko bideak proposatu beharko ditu. Lankidetzaren publiko-herritarra baita egitasmoaren ezaugarrien artean bat.

Burujabetza proiektu bat ezinbestekoa da:


Antolakuntzaren bidez behar materialak asetzeaz ari gara, hau da, demokrazia ekonomikoa eraikitzeaz. Ez gara aldarrikapena kanpainez edo programa publikoez ari. Ahal dugun neurrian gure kabuz egiteaz ari gara. Honek proiektugintza eskatzen du, burujabetza graduak eskuratzea

ahalbidetuko duten egitasmo publiko-herritar sozio-ekonomikoak garatzea.


Gobernu ekosistema era komunean txertatzeko

borondatea: Hernani Burujaberaren baitan txertaturik, edozein egitasmo baliabideak jasotzeko aukera izango du (informazioa, sarea, espazioak, ekonomikoak, komunikazioa, etab.). Era berean, egitasmo horiek gobernu marko komunetan egon beharko dute: Autonomia izango du bere eremuan baina egitasmo integralari zor zaio.

Planifikazio bateranzko gobernu ekosistema



Ekosistema honetan elementu hauek dira funtsezkoak:



- **Herritarrak:** Hernani Burujabe sustatzeko helburuz sortu den herritarren talde bat, Bidean izena hartu duena. Beraien zereginak dira: prozesuaren herriratzea; gainontzeko eragile sozial eta politikoak (Feministak,









Antirrazistak...) prozesura gehitu eta beraien aldarrikapenak burujabetze prozesuan zeharlerrokatzea; eta ehun ekonomikoaren (sektore bakoitzeko talde sustatzaileekin) eta herritarren topagune den Burujabetzen Foroa dinamizatzea.

- **Talde Sektorialak (ehun ekonomikoa):** Sektore ekonomiko estrategikoen burujabetza prozesuak sustatzen dituzten herritarren topaguneak dira. Espazio horiek herritarren auto-antolakuntzarako espazioak dira, hau da, sektore bakoitzean interesa duten herritarrek sektoreak burujabetze prozesuan jartzeko egingo dituzten ekimen eta estrategiak modu autonomoan antolatzen diren guztiak dira.
- **Udala:** Gobernu Taldeko zinegotziek osatzen dituzten taldeak dira. Udalak prozesuaren sustatzaileetako bat izateko hartu duen antolaketa ereduak da: Udalgintza Herrigilea: Ekonomiaren planifikazio demokratikoa ahalbidetzeko udal barruan egin beharko diren zereginak gidatzen dituen taldea; Herrigintza Udalgilea: herritarrak prozesuaren gidari nagusiak izatea ahalbideratuko dituzten zeregin horietaz arduratzen dituen taldea; Tokiko Garapen Burujabea: sektore bakoitzean diseinatu eta adostu diren estrategiez eta proiektuez arduratzen den taldea.
- **Burujabetza Mahaiak:** Herri ekimena, proiektu ekonomikoa eta udal politikak artikulatzeko elkar-lan espazioa da. Bertan herri ekimenaren planak-beharrak eta proposamenak, eta udal lehentasunak negoziatzen dira. Eraginkortasun eta inpaktua handitzea da helburua. Mahai hauen konposizio ideala honako hau da:
 - **Herri ekimeneko ordezkariak:** burujabetza proiektua sustatzen ari direnak, behetik gorako planifikazioaren subjektu direnak.
 - **Zinegotzi arduraduna:** udal irizpideak ekarriko dituena eta mahaikoak udalera eramango dituena.
 - **Teknikari arduraduna:** bere alorreko jakintza ekarriko duena, mahaia udal planekin lerrokatuko duena eta inplementazioan murgilduko dena
- **Tokiko Garapeneko Teknikaria:** burujabetzen garapen estrategikoaren ardura eduki eta zehar-lerroak lantzen dituena.
- **Jarraipen estrategikoa egiten duen Hiritik At:** idazkaritza eta dinamizazioa. Bestetik garapen estrategikoari ardura eduki eta zehar-lerroak landu eta gobernu markoen arteko loturak bermatzen dituena.
- **Mahaiaren lanabesak:**
 - **Plan sektorial partekatuak:** Herri ekimenaren eta udalaren arteko lankidetzaren puntuak zehazten dituen dokumentua. Epe ertainean Burujabetza eremua modu integralagoan nola landu zehazten duena. Hau da, mahaiaren orientaziorako dokumentua. Mahaiko agenteek osatua Hiritik AT-en galbahearekin.
 - **Proiektu estrategikoak izatea.** Hau da, neurri-programak baino, lurralde agenteak egitasmo sozio-ekonomiko konkretuetan mobilizatzeko gaitasuna duten proiektuak lehenetsiko dira.
- **Burujabetzen Foroa:** Sektoreen burujabetza sustatzen duten talde sustatzaileek eta herritarren taldeak, Bidean-ek, osatzen duten espazioa. Bidean elkarrekin dauka espazio horren dinamizazioaren ardura, eta espazioaren helburua da herritarren auto-antolaketa ekonomikoan sakondu, hedatu eta sektoreen arteko koordinazio eta artikulazioa bideratzea.
- **Burujabetzen Kontseilua:** Eraikitze fasean dagoen planifikazio markoaren espazioa. Hernani Burujaberaren espazio-gorena izango da, hori izango baita Hernani Burujaberaren erabakimen marko nagusia. Kontseiluak

lurraldeko 3 erpinak barnebilduko ditu ekonomiaren planifikazioaren lehentasunak eta inbertsioen nondik norakoa erabakiko duen espazioaren baitan. Ambizioa da hernaniar

guztien parte hartzea ahalbideratuko duen espazioa izatea. Demokraziaren sakontzea, ekonomiaren demokratizazioaren bidez gauzatuko duen gunea, alegia.

Arkitektura honen begietatik, hauxe da gaur egungo egoera.

		MAHAIA	PLAN ESTRATEGIKOA	SUBJETUA
	Energia			ENHERKOM
	Elikadura			Herrilur HENASE
	Zaintza			Maitelan Zabalduz
	Telekomunikazioak			EH kom
	Ekhilur			Ekhi Hernani Berriak elkartea
	Biodibertsitatea			Sagarreta elkartea
	Etxebizitza			
	Kultura			



Egina



Prozesuan

Hasi besterik ez den bidea


Bi ikasturte eskas baino ez ditu egitasmoak. Gaur eta hemen oso zaila da helburu estrategikoei begirako balantze bat egitea ere.

Burujabetza egitasmoen baitako dinamikek hernaniarren bizi baldintzak hobetu dituzte? Hauetarako atea zabalduz ekonomiaren demokratizazio bat eman da? Burujabeago da Hernani gaur landu diren eremuetan duela 2 urte baino? Zenbat, letxuga, KW, zaintza ordu duin, ... planifikatu, ekoiztu eta gozatu dira egitasmoak sortu duen dinamikaren baitan? Ezin dira funtsezko galdera horiek inoiz baztertu, baina oraindik goiz da erantzuteko.

Haatik gauza bat baieztatu dezakegu: orain arte egin den guztia norabide horretan egina izan da. Gehiago, ziur gara orain arteko denbora prestaketa lan gisa ere ulertu behar dugula. Asko izan baita eztabaida, hitz egitea, kontzientziak jorratu eta ereitea, proiektuak eraikitzea, antolatzen ikastea... Hain zuzen ere horixe izango da datorren ikasturteko erronka nagusiena: Jada funtzionatzen hasteko prest diren egitasmoetara hernaniarrak modu masiboan biltzea.

Hernani Burujabe ez da konbentzientzako sortu, bertan ez daudenak, beren bizi-baldintzen hobetzeaz konbentzitzeko baizik. Egungo agonia existentzialari, kolektiboki eta lurraldetik aurre egiteko marko bat eskaintzeko sortu da Hernani Burujabe. **Gauzak ondo eginda, modu batean edo bestean 20.362 pertsona txirikordatu beharko lituzkeen egitasmoa da** ■

Burujabetza proiektuz, proiektuz eraikitzen



energia

ENHERKOM IRABAZI ASMORIK GABEKO KOOPERATIBA INTEGRALA

SORRERA	2022-ko Otsaila
PARTAIDEAK	Herritarrak, bazkide erabiltzaile gisa Hernaniko Udala, bazkide kolaboratzaile gisa Tokiko enpresak (kolaboratzaile edo zerbitzu-emaile figuran)
HELBURU NAGUSIAK	Hernanin energia trantsiziorako motor herritarra izatea. Horretarako kontsumo murriztean, pobrezia energetikoan, energia ekoizpen berriztagarrietan eta mugikortasun eruedetan gauzatuko ditu ekimen eta proiektuak.
ARTIKULAZIOA	Hernani Burujabe egitasmoan hartzen du parte, marko hauetan egonez: Energia Burujabetza mahaia: Hernaniko Udalarekin batera Burujabetzen Foroa: Herritar taldeak deituriko elkar-lan espazioa. Komunikazio mahia.
AURREKONTUA 2022	692.000 €
EGOERA	Kooperatibaren sorrera burututa Plaken instalazioa martxan Erabiltzaileentzako arreta bulegoa martxan



elikadura



LUR BANKU PUBLIKOA

SORRERA	2020ko Apirila
PARTAIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ‡ Hernaniko Udala ‡ HENASE
HELBURU NAGUSIAK	Nekazal sektorea indartzeko eta nekazal lurak babesteko lurak erosi eta nekazari berriei lagatu
ARTIKULAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> ‡ Hernani Burujabe egitasmoan hartzen du parte, marko hauetan egonez: ‡ Elikadura Burujabetza mahaia ‡ Burujabetzen Foroa: Herritar taldeak deituri-ko elkar-lan espazioa ‡ Komunikazio mahia.
AURREKONTUA 2022	<ul style="list-style-type: none"> ‡ 8.000 € Landa lurren mapa ‡ 80.000 € / urtean lurak erosteko (gauzatu gabe)
EGOERA	Aurre-lanketa

HERRILUR ESPAZIOA – KM0 DENDA

SORRERA	2020ko Apirila
PARTAIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ‡ Herrilur ‡ HENASE
HELBURU NAGUSIAK	Bertako produktua merkaturatzerako espazioa sortu eta Elikadura Burujabetzaren inguruko sentsibilizazioa, hezkuntza eta dinamizazioa burutu.
ARTIKULAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> ‡ Hernani Burujabe egitasmoan hartzen du parte, marko hauetan egonez: ‡ Elikadura Burujabetza mahaia ‡ Burujabetzen Foroa: Herritar taldeak deituri-ko elkar-lan espazioa. ‡ Komunikazio mahia
AURREKONTUA 2022	<ul style="list-style-type: none"> ‡ 68.500 € espazioaren atontze lanentzako (Herrilur kontsumo elkartearen aportazioa eta Foru Aldundiaren diru-laguntza) ‡ 30.000 € dinamizatzaileen kontrataziorako (Udala-HENASE hitzarmena)
EGOERA	Martxan




zaintza

NEKAZARI BERRIENTZAKO PRAKTIKALDIAK

SORRERA	2022ko maiatza
PARTAIDEAK	HENASE
HELBURU NAGUSIAK	Gazteak nekazaritza hurbildu. Publifikatu nahi diren ekoizpenerako lurak modu kolektiboan kudeatu. Sektoreko eragileen elkarlana eta artikulazioa sustatu.
ARTIKULAZIOA	Hernani Burujabe egitasmoan hartzen du parte, marko hauetan egonez: Elikadura Burujabetza mahaia Burujabetzen Foroa: Herritar taldeak deituri-ko elkar-lan espazioa. Komunikazio mahia.
AURREKONTUA 2022	20.000 €
EGOERA	Martxan

AUZOZAINZA


SORRERA	2021 otsaila
PARTAIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ↳ Maitelan, Zabalduz eta Udala ↳ Helburu nagusiak ↳ Bakardade ez hautatuan dauden pertsonak identifikatu eta komunitatearekin elkarlanean egoera horretatik ateratzea
HELBURU NAGUSIAK	Bakardade ez hautatuan dauden pertsonak identifikatu eta komunitatearekin elkarlanean egoera horretatik ateratzea
ARTIKULAZIOA	Hernani Burujabe egitasmoan hartzen du parte, marko hauetan egonez: <ul style="list-style-type: none"> ↳ Zaintza mahaia ↳ Burujabetzen Foroa: Herritar taldeak deituri-ko elkar-lan espazioa. ↳ Komunikazio mahia.
AURREKONTUA 2022	268.000 €
EGOERA	Martxan



moneta

HERNANIKO EKHI-A


SORRERA	2022ko urtarrila
PARTAIDEAK	Ekhilur kooperatiba; Hernaniko udala
HELBURU NAGUSIAK	Hernaniko ordainketa sistema propioa eraikitzea, bertan sortzen den aberastasuna bertan gelditu eta hernaniar guztien artean banatu dadin. Sektore burujabeak beraien artikulatzea eta egitura ekonomiko burujabe bat gauzatzeko giltzarria izango da.
ARTIKULAZIOA	Hernani Burujabe egitasmoan hartzen du parte, marko hauetan egonez: <ul style="list-style-type: none"> ▶ Moneta Burujabetza mahaia. ▶ Burujabetzen Foroa: Herritar taldeak deituriko elkar-lan espazioa. ▶ Komunikazio mahia.
AURREKONTUA 2022	79.000 €. Ekhi-aren inplantazioa eta obari kanpaina
EGOERA	Abiatze fasean



telekomunikazioak

IRRATI BIDEZKO INTERNET KONEKXIOA LANDA EREMUAN

SORRERA	2022ko ekaina
PARTAIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Hernaniko Udala • EHkom
HELBURU NAGUSIAK	Landa eremuan kalitatezko internet konekzioa bermatzea azpiegitura publiko-komunitarioak eraikiz.
ARTIKULAZIOA	Hernani Burujabe egitasmoan hartzen du parte, marko hauetan egonez: <p>Telekomunikazio Burujabetza mahaia</p> <p>Burujabetzen Foroa: Herritar taldeak deituriko elkar-lan espazioa.</p> <p>Komunikazio mahia.</p>
AURREKONTUA 2022	2.500 € azpiegitura berritzeko (Udala eta Ehkom-ek egindako inbertsioak) 13.300 € aholkularitza lanetarako (Ehkom-en kontratazioa) 25.000 € arteko dirulaguntza baserrietan instalazioak finantzatzeko.
EGOERA	Abiatze fasean



**Bio-
aniztasuna**

SAGARRETA

SORRERA	2022ko maiatza
PARTAIDEAK	Ereñozuko eta Hernaniko hainbat herritar
HELBURU NAGUSIAK	Herriko Bioaniztasuna ezagutu, landu eta honen gaineko kudeaketa eredu burujabea egitea
ARTIKULAZIOA	Hernani Burujabe egitasmoan hartzen du parte, marko hauetan egonez: Burujabetzen Foroa: Herritar taldeak deituri-ko elkar-lan espazioa. Komunikazio mahia.
AURREKONTUA 2022	Oraingoz espezifikorik ez
EGOERA	Hasi berritan



**Merka-
taritza**

MERKATARITZA

SORRERA	Hernani Burujabe aurretik existitzen zen espazioa
PARTAIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ↳ Berriak merkatarien elkarte ↳ Hernaniko udala ↳ Ekhilur kooperatiba
HELBURU NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> ↳ Hernaniko merkataritza txikiaren sustapena egitea. ↳ Hernaniko merkataritzaren portal elektronikoa. ↳ Ordainketa sistema propioa (Ekhilur) ezartzea
ARTIKULAZIOA	Merkataritza mahaia.
AURREKONTUA 2022	43.900 €. Erakusleho digitala eta banaketa sistemaren froga pilotua
EGOERA	Martxan





04 Buru- jabetza[k.]

LURRALDE BURUJABEAK ERAIKITZEKO AGENDA

“Gizartean bizitza erreproduzitzeko eremu estrategikoetan burujabetza berreskuratzeko bidean aurrera egitea da helburua. Zer behar dugu bizitzeko? Nola antolatzen gara hori asetzeko? Zer bitarteko behar ditugu horretarako? Nola erlazionatzen gara produkzio-prozesuan? Zer egingo dugu soberakinarekin?”

(HAINBAT EGILE. SOBERANIAS, 2020)



Testu honek burujabetzaren gainean hausnartuko du. Kontzeptu eta praktika gisa.

Hernani Burujaben egiaztatu dugu soberaniaren ulerkera tradizionalak ez digula balio errealitatea behetik gora eraldatzeko. Zibilizazio krisiaren ingurumarian eta Euskal Herrian oinak jarririk, lurralde egitasmo antagonistak artikulatzeko ez-gauza da aipatu ulerkera. Egokitzapena behar du potentzia artikulatzailea izango badu. Honenbestez, Lurralde Burujabetzaren paradigmarekin bat datorren kontzeptualizazio berri baten bila joko dugu testu honetan. Horretarako iturri teorikoak bai, baina batez ere, kronikan ezagutu dugun esperientzia praktikoaren irakasgaiak ekarriko ditugu. Ondorioztatuko dugu, pluralean eta lurraldean konkretu egiten diren burujabetza sozio-ekonomikoen ikuskera, baliagarria dela lurralde burujabetzak planteatzen duen zero-muga lortzeari begira: Lurralde planifikazio publiko-herrikoa.

Lurraldegintza berri baterako: Soberania formalaren ulerkera gainditzeko beharra

Soberaniaren ulerkera tradizionalaren baitan, lurraldetasuna eta boterea (singularrean) estatu-nazioari estu lotu dira. Hemen, burujabetza botere instituzionalizatua da. Era berean, nazioaren artikulazio politiko-juridikoa izan nahi duen Estatua dago zentroan. Estatua da agente politiko zilegi bakarra. Lurraldea estatu espazializatua da eta politika, instituzio-formalera mugatua da.

Ikusi dugu, 70.hamarkada abiatzen den aron proiektuaren baitan, **kapitalismo globalizatuak gogor moldarazi duela soberania.**

Hernaniko kasuan, lau faktore nagusi gurutzatu dira burujabetza eremuak lehenetsi eta irekitzeari begira



Lehena, **justizia sozialaren** ikuspegitik objektibotzat har dezakegun aldagaia da. Larrialdi sozialaren baitan bizi sustengurako estrategikoak diren eremuak lehenetasun bilakatzen dira. Honegatik, energia, elikadura edota zaintzaren eremuak hasieratik zabaldu dira.



Bigarren aldagaia, **politika municipalisten ibilbidea** izan da. Eremu ugartitan lankidetzeta ibilbide oso bat zegoen, burujabetzak lantzeko orube ona. Kulturaren edota elikadura honen adibide dira.

Estatuetatik gora zentralizatu dira aro fordista-keynesiarrean Estatuak izan dituen hainbat eskumen. Tartean, erregulazio sozio-ekonomikorako funtzio asko Europa Batasuna bezalako blokeen eskuetara pasa dira. Beste askotan merkatu-federa makurtu dira indar publikoak: Lehiaren logikak banatuko ditu bizitzarako beharrezko diren baliabideak.

Estatu eskala azpitik, metaketa erregimen malguari loturiko lurraldetze berriak eman dira. Hauen egituratze logika merkatu lehiarena izan da, inbertsioak erakartzeko lurralde norgehiagokarena. Gertu ditugu EuroHiria, Euroeskualdea eta metropolizazio prozesuak. Soberaniari begira, egiturazko erabakirik hartzeko eskumenik ez duten lurralde egiturak dira, instituzionalizazio gradu baxukoak.

Goitik eta behetik eraldatua izan bada ere, Estatuak ordena kapitalistaren berme nagusi

izaten jarraitzen du. Bera da populazioaren diziplinatzaile nagusi, bir-banaketa mekanismo sendoena izaten jarraitzen du eta merkatu arautzaile nagusia bera da. Haatik, ezin da soberaniaren edukiontzi bakar gisa irudikatzen jarraitu.

Honez gain, gailu ideologiko bat ere bada "soberania". Estatu ordena kapitalistari lotzen gaituen kontzeptua: Erabakimena estatu-nazio eskalara mugatzen du, ekonomia demokraziaren esparrutik ateratzen du (ez politiko gisa) eta lurraldeetan eraikitzen ari den herri ekimenen gaitasun eratzailera ukatzen du.

Horregatik, lurraldea-estatu eta boterea singularrean ulertzen duen soberaniaren ulerkera moldatzerara behartuak gaude. Oraindik ere, soberaniaren ulerkera tradizionalak honela dio: "Lehenik estatua eta gero gerokoak". Horrela ez gerorik ezta estaturik ere.



Hirugarrenik **Herritarrek ezarritako lehentasunak** koka ditzakegu. Herri mugimenduaren tradizioan egina den Herritar Taldeak, jardunaldi jendetsuen ostean sustatu dituenak. Etxebizitza edo bio-aniztasunaren eremuak aldagai honen baitan ireki dira.



Amaitzeko **udal zein herritar antolatuen intuizio politiko konpartitua** azpimarratuko dugu. Intuizio hau ez da ausazkoa, planifikazio prozesu partekatuan sortu den ikuskera komunean sustraitu da. Nolabait, lausoa den inteligentzia kolektibo komun bat erditu bat, marko bera partekatuzetik datorrena. Konfiantza harremanak ere garrantzitsuak dira, adostasunak afektu, konpromiso eta zesio ariketak ere badirelako. Honela, orain arte ez da zaila izaten ari lehenetsi behar diren burujabetza eremuen gainean adostasunak eraikitzea.



Burujabetzak pluralean: Lurraldean etorkizuna planifikatzeko kontzeptu baliagarri baten bila

Ingurumari teoriko zein esperientzia eraldatzaileetatik, burujabetzen ber-formulazio berri baten bila ari dira asko. Gaur eta hemen, modernitatearen krisiaren testuinguruan, egokitzapenak behar baititu kontzeptuak. Errealitatea eraldatzeko baliagarria izango bada behintzat. Hernaniko esperientzia, egokitzapen saiakera praktikoa bat da zentzu honetan.

Hernani Burujabetzen burujabetzak pluralean izendatuko dira eta forma konkretu hartu nahiko dute lurraldean. Izan ere, gure bizitza indibidual eta kolektiboaren sustengurako funtsezkoak diren eremuen gaineko herritar kontrola eraikitzeke prozesu

integrala da burujabetzena. Egitasmo kolektiboek elikatu, berotu, zaindu, konektatu... eta horiek demokratikoki gobernatzeko prozesu integrala da.

Lurralde Burujabetzen kokatzen den burujabetzen paradigmatikoa, erlazio sozial kapitalistak gainditzeko borondatea du. Horregatik kanpora eta gora eskalatu behar dira. Kanpora, eremu ekonomikoaren balio kate guztiaz ber-jabetu behar garelako: Baliabidez, ekoizpenaz, banaketaz, kontsumoaz eta prozesuan sortzen den zaborraren kudeaketaz. Egitasmo burujabetza sortu beharko dira balio-kateen lotura bakoitzean. Erronka prozesuaren zati ahalik eta gehienak lurraldean ematea da. "Gora" ere eskalatu beharko da noski. Zenbait behar sozial eskala handiko ekimenez aseko baitira modu eraginkorrago batean¹. Telekomunikazio Burujabetzen tokiko erronka eta

1. Eraginkortasunak ez du zerikusirik errentagarritasunarekin. Eraginkorra izatea lan denbora eta baliabide natural gutxiagorekin behar soziala asetzeko da. Trantsizio eko-sozialaren zeru-mugan badira honekin loturiko bi ezaugarri: 1) Baliabide gutxiagorekin bizitzea eta 2) beharturiko lanetatik askatzea (egun enplegu formapean ematen dena) denbora librean irabazteko gure bizitzetan. Honegatik eraginkortasuna burujabetza egitasmoen ezaugarri estrategikoa da.



EHKom-en sorrera prozesua esaten dugun honen adibidetzat har daiteke.

Burujabetzen irekiera eta hedapena, planifikazio publiko-herritarrari lotuak egongo dira.

Partekatzen dugun lurraldean, zer ekoiztu, nola ekoiztu eta zer egin prozesuan sortzen den aberastasunarekin termino erradikalki demokratikoetan erabakitzeko. Eszenario honen aurrean izango da posible bir-banaketa politika sendoez aritzea. Hernaniko herritar batek zion bezala, “faktore ezberdinengatik ez duenari ematea, hobe bizi dadin”. Elkartasun ariketa horrek ez du zertan diru forma hartu behar burujabetzen paradigman. Alor anitzetan egitasmoak eraikiz, posible izango da bizitzarako behar dena zuzenean eskaintzea diru-merkatutik pasa gabe. Dela argi-indarra, letxugak, zaintza denbora edota banda zabaleko konexioa.

Bestetik, demokratizazio prozesuen baldintza materialez ari zaigu burujabetzen paradigma:

Baliabideen publikifikazio eta ekoizpen bitartekoen

sozializatorik gabe, ezin baitugu planifikaziorik egin. Udal eta herri artikulazio sendoenek ere zailtasunak dituzte erabaki asko praktika gauzatzeko. Horretarako baliabideak ez baitaude kontrol demokratikoaren mende. Sinplea dirudien printzipio hau praktikara eramatean modernitatearen funtsezko eszisio bat gainditzeko urratsa emango dugu: Eremu ekonomiko eta politikoa banatzen dituen. Apika horregatik, ez dira gutxi izango bidean topatuko ditugun traba legalak². Dena den, bizitza erdigunera ekartzean honen integritasunari heldu nahi zaio eta hor zentzugabe agertzen da “ekonomia” eginkizun publikotik banatzea.

Burujabetzen paradigmen baitan jabetza formak berrikusteko aukera dugu.

Hernanin “jabetza soziala” praktikan jartzen ari den forma da, beti ere ekoizpen bitartekoei loturik. Formalki publikoa den ekoizpen bitartekoa baina marko adostu baten baitan herri antolatuari (kooperatiba forman adibidez) lagatzen den jabetza da. Honetan erabilera eta kudeaketa herritarrek egingo dute zuzeneko demokrazia eremua handituz. Aitzitik, adosturiko markotik desbideratzen bada kudeaketa (baliabideak privatizatuz adibidez), udalak eskumena du lagapen hori atzera ekartzeko. Ez baitu inoiz jabegoa galdu. Formula hau arriskutsua izan daiteke zenbait eremuri aplikatua (pentsio edota osasunari begira, privatizazio prozesuetara hurbiltzen gaitu). Kontrara, oso baliagarria izan daiteke udalak bakarrik ezin duen eremuetan: Burujabetzak zabaltzeko aukera ematen baitu eta publikotasun eredu demokratikoago batera hurbiltzen gaitu. Honela, tokian tokiko ekosistema ekonomikoak artikulatzeko jabetza forma estrategikoa dela ikusten ari da Hernanin. Izan ere, bikain egokitzen da Hernani Burujaben nabaria den tentsio bati: Egitasmo burujabeek behar

2. Gehienak merkatu librearen babesarekin lotuak dira. Izan ere, sektore gehienetan udala ezin du agente ekonomiko gisa parte hartu horrek “merkatu distortsioa” sortuko lukeelako pribatuen kontra. Legez arautua da beraz “erregulazioa eza”. Nola ez, publikoak eskumenak dituen eremuak kapitalarentzat errentagarriak ez diren horiek dira. Adibidez babes sozialeko eremu guztia (hirugarren adina, gazteak, bazterketa soziala, etab.).



duen autonomia eta planifikazioak exijitzen duen koordinazio integratua. HENASE-ko nekazariak erabiliko dituzten lur publikoak, Enherkom-ek erabiliko dituen estalpe publikoak eguzki plakak jartzeko, Maitelan Koop.-en bidez ematen den zaintza zerbitzu publikoa edota transformazio guneak erabiliko duen eraikin publikoa jabetza forma honen adibideak dira.

Honi loturik, gurean tradizio luzea duen kooperatibismoa ber-pentsatzeko parada dugu.

Baita bizitzaren alde dagoen Ekonomia Sozial Eraldatzailea ere. Hernani Burujabek suposatzen duen planifikazio markoak helduleku soziala ematen dio jarduera ekonomiko honi. Modu esplizituan lotzen dira behar sozialak eta enpresa kooperatiboen jarduera. Lotura hau gabe ohikoa izaten da kooperatibek bazkide-tuen interesari begiratzea soilik, lurralde beharrak bigarren plano batean lagaz. "Egoismo kolektiborako" arrisku bezala izendatu izan da joera hau. Kontrara, merkatu lehia apaldu eta planifikazio demokratiko bati loturiko kooperatibismoa, lurralde beharrei modu autogestionatuan erantzuteko forma enpresarial indartsua izan liteke. Izan ere, lanaren burujabetza sustatzeko gaur egun dugun forma egokiena da kooperatibagintza.

Burujabetzen ikuskerak agenda konkretu bat ematen dio Hernani Burujaberi. Planifikazio ekosozialistaren abstrakzioetik, lurralde proiektuetarako zehaztapena egiteko zubia da paradigma. Lurraldeak, honen planifikazioak... forma konkretua hartzen dute kontsumo taldean, energia komunitatean edota auzo-zaintzan. Lerratuak daude guztiz estrategiarekin eta era berean herritarrari eskaintza bat egiten dio. Bi zentzutan: Onura material bat eta antolatze marko bat. Ulergaitza izan daitekeen trantsizioan leku ugari proposatzen zaizkio herritarrari, subjektu izateko espazioak emanez. Era berean, lehentasunak ezartzeko paradigma lagungarria da. Lurraldean eman beharreko disputak gidatzeko baliagarria. Enherkom-eko kide batek zion bezala:

"sortzen ditugun egitasmoekin herritarrari ere mezu hau helarazten diogu: Soluzioaren parte izatera gonbidatzen zaitugu, arazoaren parte izateari utz diezaiozun". Kapitala Vs Bizitza burujabeak antagonismoa lurraldera ekartzeko zubia da burujabetzen ulerkerak hau. Antagonismo orokor horri plangintzaz eta proiektu zehatzez hornitzeko kontzeptu baliagarria.

Bestalde, Hernaniko esperientziak erakusten digu Burujabetzen paradigma herrigintzarako marko aproposa dela.

Izan ere, komuneari ditugun beharrei erantzuteko aurrez-aurreko kooperazioerako bide ugari planteatzen ditu. Bizitzako eremu askotan, proiektu mota oso anitzekin. Udal-herri artikulazioari esker, egitasmo burujabetan murgiltzeko egiturak eta baliabideak izango ditu herritarrak. Hauxe da burujabetzen estrategian udalaren funtzio nagusi bat: Egitasmoekiko atzikipen unibertuala bermatzea³. Hala ere, herrigintzan ezinbestekoa den erabakimen autonomia babestuko da: Inork ez dio esango HerriLurr-i nola kudeatu denda planifikazio orokorraren irizpide nagusiekin bat doan bitartean.

Amaitzeko, komunitategintza konkretuago baterako markoa ere izan daiteke burujabetzen ulerkerak hau.

Komunitate imajinatu baten logikatik ("gutasun metafisikoa", esentzialismorako joera historikoa izan duena), kooperazioaren gaitasun eratzailaren bidez ekoizten baititu lotura komunitarioak (sozial-konkretua). Kontsumo elkartean edo energia edukitzeko proiektuak altxatzen, kondizio ezberdineko herritarren arteko espazioak sortzen dira. Klase herrikoiek komuneari behar ugari ditugula onartzen badugu, burujabetzen paradigma komunitategintza inklusiboago baterako markoa izan daitekeela ondorioztatuko dugu.

3. Klase arrakalaren aurrean udalak neurri orekatzaileak martxan jartzen ez baditu sektore sozial batzuk kanpoan geratuko dira. Neurriak ekonomikoak (laguntzak dirutan), formaziozkoak edota harremanei begirakoak izan daitezke.



Dialektika ezinbesteko baten azpimarra

Amaitzeko soberania formalaren (singularrean) eta landu dugun Burujabetzen paradigmen artean dagoen dialektika azpimarratu nahiko genuke


Hemen ez da Estatu forma hartu dezakeen burujabetza formal baten ideia ukatzen. Alderantziz. Izan ere, Estatu egiturek jarraikortasuna, eskalatzeko gaitasuna, bir-banaketa sistema sendoa edota izaera sistemikoa emango diezaiekete behetik datozen ekimen burujabeek. Estatu egiturek (oraindik) suposatzen duten bir-banaketa tresna eta zilegitasunik gabe, behetik gorako burujabetza prozesuak ez dira inoiz unibertsalak eta metakorrak izango.

«Ondo bizi nahi duen herri baten antolaketa eta planifikazio prozesu baten azken espresio kontzentratua da honela Estatu berri hori.»

Baina esan dugu burujabetza ez dagoela Estatuan soilik. Ordena jakin bati egina dagoen instituzioa ez da aski trantsizio ekosoziala gauzatzeko.

Honela behetik datozen ekimen burujabeak sustatzea, soberaniaren alor sozio-ekonomikoa prefiguratzea da, estatu hori modu konkretuan betetzea gaurtik eta nolabait zentzua ematea. Ondo bizi nahi duen herri baten antolaketa eta planifikazio prozesu baten azken espresio kontzentratua da honela Estatu berri hori. Behetik gorako lurralde burujabeen konfederazioaren plaza komuna.

Honela, Burujabetzen paradigmatik, estatua ez da nazio imajinatu baten espresioa, kooperazioan egin diren lurralde burujabeen konfederazioa baizik ■





Gober- nantzatik planifikaziora

“...etorkizun posibleen planifikazio demokratikoa. Herri mugimenduen aktibazio politikoa duena aurre-baldintza, eta hauek erabaki egituratzaileen prozesuan modu progresiboan txertatuko dituen. Anitza eta konplexua izango da, ez soilik erabaki gune publiko-instituzional eta popularrak uztartu beharko dituelako (talde teknikoak eta oinarriko demokraziaren esparru herrikoiak), baizik eta anitza izan beharko duelako konposizioan; genero, arraza eta klase terminoetan. Gainera, planifikazio hau ezingo da goitik egin, ez da “zentro” batetik eratorriko, eskala anitzetan sortu beharko diren erabaki markoen sinergiatik sortuko da”

(MARTIN ARBOLEDA. GOBERNAR LA UTOPIA, 2021)



Testu hau gobernantzaren kritikarekin hasiko da. Gure lurraldeak trantsizio ekosozialaren bidean jarri behar ditugun honetan eta Hernaniko esperientzia frogatzat hartuz, “governantza” gainditu beharraren ondorioa iritsiko gara.

Tokiko instituzio publikoak gidatzen dituen kontzeptu eta kudeaketa eredu gisa ez baita baliagarria egungo testuinguru kritikoan. Honi “Planifikazioa” kontrajarriko diogu. Gure lurraldeetan egiturazko aldaketak eman behar badira zibilizazio krisiaren amildegia ekiditeko, ezin gara epe motzeko interes publiko-pribatuen kudeaketara mugatu. Planeta akitu duen bizimodu modernoaren aldaketa ematera bagoaz, gure lurraldeak prestatu beharko ditugu gutxiagorekin hobe bizi ahal izateko. Honek, orain arte ezagutu ez dugun ariketa erraldoiena eskatuko du: Utopia berreskuratu, ekarri nahi dugun etorkizun horren diseinua kolektiboki egin eta planifikazio demokratikoa martxan jarri. Ariketa heroikotzat jo dezakegu, baina bizitza dugu jokoan. Hernanin planifikazio nozio honekin mugimenduan dagoen prozesu bat dugu. Esperientzia honetatik, Euskal Herriko beste herrietarako ere baliagarriak izan daitezkeen kudeaketa eredu honen ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu. Ondorioa Lurralde Burujabeak eraikitzeko kudeaketa eredu planifikazioa dela izango da.

Gobernantza: Neoliberalismoaren kudeaketa eredia gainditzeko beharra

Lurraldegintza burujabe baterako proposamenak botere kudeaketaren auziari heldu behar dio ezinbestean. Ikusi dugunez, globalizazio neoliberalaren aro-proiektuak gertuko lurralde eskalak desartikulatu ditu termino sozio-ekonomikoetan. Eskala txikiagoetan lotzen ziren balio kate asko, merkatu globalaren eskalara ekarri ditu. Hots, baliabide-ekoizpen-banaketa eta kontsumo momentuak geografia ezberdinetan kokatu ditu errentagarritasun handienaren printzipioari jarraiki. Ondorioz lurraldegintza kapitalista bezala izendatu dugun praxia dugu: Kapital zirkulazioaren beharrei begira gure lurraldeei forma ematen dien marko/praktika multzoa.

Eskala hierarkia tradizionalen aldaketek eta lurralde egiteko logika neoliberalak praktiketan eragina izan dute. Ezinbestean.

Estatuez gandi, globalitatean lehiazeko bloke erregionalak sortu direla ikusi dugu. Demokraziaren ikuspegitik ondorio onik ez du ekarri: erabakimen guneak herritarrengandik urrun diren espazio ilunetara eraman dira, demokraziaren pribatizazioaren joerari edukiontzi instituzional bat emanez. Europar Batasuna da honen adibide.

Estatuen azpitik lurralde lehiari loturiko lurraldetasun berriak artikulatu dira, bereziki 90 hamarkadatik hona. EB, merkatu europarra eta enpresak asko puztu badira ere, azken hauek beti beharko dute lurraldea inbertsioen gauzatzerako. Kapitala lurra ukitzen ez duen arte ez da ber-balorizatzen. Baina zein eta zergatik izango da lurralde bat edo bestea hautatua? Hasi da lurraldeen arteko lehia enplegua sortzeko promesa duten inbertsioak erakartzeko. Laster erdituko da lehia hau gobernatzeko kudeaketa eredia: Gobernantza.

Turbo kapitalismoaren garaian dena aldatzen da oso azkar, dena da epe motzekoa eta tokian tokiko administrazioak ez dira gai inbertsioen eskakizunetara lurraldea behar bezain azkar moldatzeko. “Stake-holder”-ak agertuko dira. Itxuraz interes orokorrarekin lotura duten agente pribatuak. Hauei leku eginez, administrazio publikoak gobernatzeari utziko diote eta sare-gobernantzan murgilduko dira han eta hemen instituzionalitate berriak sortuz¹.

Neoliberalismoak gogor joko du sektore publikoaren kontra. Besteak beste autoritario eta ez-eraginkor izatea leporatuko dio kudeaketa publikoari. Alternatiba pribatizazioa da. Izan ere, merkatua instituzio eraginkor eta libreagoa da baliabide esleitze eta erregulazio sozialari begira. Gobernantzak ideia hauek ekarriko ditu kudeaketa publikora.

1. Behetik gora, eskualdeek promozio ekonomikorako erakundeak sortuko dituzte (Garapen Agentziak), hiriburuek metropolizazioaren apustua indartuko dute (eskala handitzea periferiak beren logikara ekarri) eta artikulazio zabalagoak ere emango dira, adibidez Euro Hiria (Donostia-Baiona ardatza) edo Euro-Eskualdea (Nafarroa, EAE eta Akitania Berriak osatzen duten kolaborazio markoa).



Kritikaren jomugan dugun gobernantzak¹ zazpi ezaugarri nagusi lituzke



Gobernuaren esanahitik urruntzen da agente publiko-pribatuez osaturiko kudeaketa sare baten alde eginez. Aipatu interes sarean udalek ez lukete autoritatez jokatu behar, konbentzimendua landuz baizik.



Kolaborazioaren ardatza lurraldearen “garapen ekonomikoa” da. Hau termino kapitalistetan ulertzen da eta gehienetan lurraldearen espezializazio produktiboaren alde egiten du. Inbertsioak erakarri eta enplegua sortzea da helburua. Logika hau “enpleguen aldeko itunetan” islatzen da maiz. Ikuskera honek politika publikoak efizientzia terminoetan ulertzea sustatu du.



Gobernantza kudeatzeko dago eta ukatu egiten ditu trantsizio integraletarako ideiak. Ez dago lurralde proiektu sendorako aukera gobernantza terminoetan. Izan ere, lurraldean dauden interes partikularren kudeaketara mugatu ohi da kudeaketa eredu hau, neutraltasun itxura zainduz.

1. Hainbeste gailendu da Gobernantza terminoa ezen jatorrizko Gobernantza ereduarekin bat egiten ez duten gobernu praktika asko “governantza” bezala izendatzen diren. Azken horiek “herritarren partaidetza” integratzen dutenean erabili ohi dute ospe ona eman ei duen “governantza”.



Gobernantza erakunde publikoek abiatu ohi dute. Baliabideak mahai gainean jartzea (dirua, informazioa, proiektu errentagarriak, etab.) entitate pribatuak erakartzeko aurre-baldintza izan ohi da. Gehiegitan baliabide publikoen pribatizazioan amaituko dute kolaborazio formula hauek.



Berrikuntza egon ohi da erretorikaren baitan. Honek lurralde egokitzapen beharrak adierazten ditu gehiengotan, sozietatea merkatu globalaren beharrekin lerratu dadin. Honez gain oso modu arriskutsuan erabili izan da "berrikuntza": Jarrera enpresarial-ekintzaileak sustatzeko, kolektiboak diren arazo-sozioekonomikoak indibidualizatuz. Ekintzailetza eta berrikuntza terminoak elkarrekin agertzen direnean trikimailu hau agerikoa da.



Publiko-pribatu mugak kuestionatzen ditu baina oso gutxitan integratuko ditu mugimendu sozialak modu iraunkorrean erabaki prozesuetan. Parte hartzea termino erretorikoetan asko puzten da baina egiturazko pisu gutxi izan ohi du. Izan ere, gobernantza lurralde lehiaren kudeaketa marko ideologikoa da. Honegatik joera handiagoa du eskubide sozio-laboralen aurka joateko (lehiakortasun irizpideek gidaturik), eskubide hauen subjektu diren gehiengo sozialak erabaki egituretan integratzeko baino.



Sortzen diren marko/instituzio berrien labirintoan (fundazio, patronatu, etab.) gardentasuna galdu ohi da. Demokraziaren pribatizazioari oso funtzionala zaion konplexutasun administratiboa sortzen da honela.



Finean lurraldegintza neoliberalaren kudeaketa ereduia izateko erditu zen gobernantza. Sektore pribatua, administrazioa eta jendarte zibila hierarkia jakin batean ulertzeko marko ideologiko gisa. Neoliberalismoaren hegemonia aroan, lehiakortasuna lurraldera ekartzeko kudeaketa gisa gailendu dena.

Guzti horregatik, gobernantzak ez du krisi anitzen ibilbidean jarria gaituen eredu sozio-ekonomikoa auzitan jartzeko aukerarik ematen. Ez plano ideologikoan, ezta plano praktikoan ere. Hortaz, zibilizazio krisiari aurre egiteko lurraldegintza berri baten formula lantzen gauden honetan, beste forma politiko bat behar dugu gure lurraldea pentsatu eta elkarrekin gobernatzeko.

Planifikazio Publiko-herritarra. Hernanitik eredu baten bila

Gaur arte 3 dira historikoki ezagutu ditugun planifikazio ereduak. Lehena Estatu sobietikoari loturikoa izan zen. Bigarrena globalizazio neoliberalaren aterkian sortu diren mega-enpresena da: Teknologia eta gerentzia teknika itzelez, Estatu askok maneiatzen ez dituzten baliabide material-humanoak koordinatzen dituzte. Praktikan merkatu asko planifikatuz. **Hirugarrena “planifikazio matxino” gisa izendatu izan dena da. Behetik eta ertzetatik datozen planifikazio ariketak alegia.** Lurraldetik hasita, herrigintzaren eta munizipalismoaren onena uztartuz etorkizun bizigarri bat ekarri nahi duen indar eratzaila. Azken honetan kokatuko dugu Hernani Burujabe.

Hernani Burujabe trantsiziorako eko-sozialerako erronkari heldu dion prozesua da. Ikusi dugunez, eremuz-eremu burujabetzen eraikuntzarekin

hartzen du oin lurraldean eraldaketak. Aitzitik, hauek ez dira modu deslotuan sortu, herri egitasmo gisa pentsatua izan baita hasieratik: Udal eta herri artikulazioak bilatu dira etengabe eredu post-kapitalista bat eraikitzeke indarguneen bila.

Hau gauzatzeari begira planifikazio forma gero eta integralagoak, gero eta konplexuagoak garatu behar izan dira. Gure ondorioa da, praxi honetan gobernantzaren markoa gaintzen hasia dela. Honekin, planifikazio publiko-herrikoia ezaugarri batzuk identifikatu dira. Jarraian hauek aztertuko dira, kudeaketa eredu hau indartu dezakeen kontzeptualizazioa dugularik helburu.

Hernanin utopiaren ideia berreskuratu da eta aliantza publiko-herritarrez horri heldu nahi zaio. Dugunak ez digula balio eta balio beharko lukeena zer den oraindik ez dugula esku artean. Honela egungo ordena ukatzen duen etorkizuna diseinatzen ari da. Harrokeriarik gabe baina momentuak eskatzen duen anbizioz. Erroko aldaketan bila doan prozesu egituratzailea da. Metodologia utopikoa inondik inora. Prozesuan egungo markoa ukatzen duten jarrera, diskurtso eta proiektuak garatzen ari dira. Prozesuan, soilik utopiak erakarri ditzakeen afektu eta ilusioak metatzen ari dira, planifikatuko den hori gauzatzeko motorra izango direnak.

Prozesuari konfliktorearen ikuspegitik begiratzen zaio planifikaziotik. Liburuxka honetan landu diren egiturazko antagonismoez jabe dira prozesuko protagonistak. Honela, eskala anitzetan (baita lokalean ere) jokoan dauden interes-talkak aitortzen dira eta denok onuradun izatearen xede tranpatia alboratzen da. Aliantza publiko, herritar eta ekonomiko lurraldetuek burujabetza eta ongizate terminoetan irabazteko, pribilegioak pilatu dituzten zenbaitzuek galdu egin beharko dute.

Hernanin burutzen ari den planifikazioa geografian eta historian kokatzen da, lokaltasun nozio txikizaleak alboratuz. Testuinguruaren



irakurketak udalerria zibilizazio krisien ingurumarian kokatzen du. Honi erantzunez, planifikazioak eskala-aniztasuna lantzeko eskema koherenteagoak eskaintzen ditu, epe luze eta zabaleko agendak zehazteko bideak irekiz. Planifikazioa gobernantzak inposatzen duen "orainaldi etengabea" eta botere labirintoak gainditzeko metodoa da.

Hernani Burujaben martxan jarri den planifikazio formak humanismoa berreskuratzen du.

Pertsonengan eta hauen arteko kooperazioak duen indarrean jartzen du fokua. Gobernantzak merkatuetan, inbertsioetan, garapenean edota berrikuntza teknologikoan fedea jartzen duen bitartean (persona pasibotasunera ekarriz), planifikazio publiko-herritarrak hauek konbokatzen ditu beren etorkizunaren subjektu izan daitezten.

Planifikazioa prozesu demokratiztaile bat da, modernitate kapitalistaren zutoin ugari kuestionatzen dituena. Izan ere, lurraldea osatzen

duten funtsezko faktore produktibo/erreproduktibo guztiak agora demokratikora ekartzeko proposamena da. Politika/ekonomia, kultura/ekonomia, sozietatea/natura bezalako eszizio zurrunek zentzua galtzen dute. Bizitza eta lurraldea bat eta bakarra baita.

Planifikazio publiko-herritarra modu gradualean hedatu daitekeen kudeaketa eredua da.

Hernani bizitzarako funtsezkoak diren eremu batzuen gainean hasi da. Publikazio aukeren gainean diseinu herritarra garatzen. Honela, ikuspegi gradual eta errealista batetik, planifikazioak eta merkatuak elkar-bizitzen jarraitzeko proposamena da hau. Erronka, gure bizitzetan egiturazko eragina duten eremu horiek planifikatzea da. Bigarren mailako produktu eta zerbitzuak merkatu sistemaren baitan antolatzen jarraituko dute. Edonola, eremu ekonomiko planifikatuaren indartzearekin, merkatu eremuan ondorioak izango dira. Prezioetan edo jarduera eremuetan adibidez.



Planifikazio publiko-herritarra ez da ameslarion ariketa inozo bat. **Kontrara, jendarte garaikideak pilatu dituen gaitasun sozio-tekniko eta teknologikoak demokratikoki diseinaturiko etorkizuna gauzatzeari begira jartzeko metodo zorrotza da.** Udal eskalan hasi garen honetan, tresna legal eta hauen zirrikituak, eskura ditugun teknologiak, udaletako jakintza teknikoak, lurraldeko intelijentzia sareak, herrigintzatik metatu den esperientzia, kooperatibagintza eta ekonomia eraldatzailea, balio kulturalak... aktibatzeke metodo bat izan nahi du planifikazioak.

Planifikazio eraldatzailea behetik gora eta goitik behera egiten da eta horri egokitua den arkitektura politiko bat eskatzen du. Honek Udal-herritar-agente ekonomikoen arteko artikulazio iraunkorretara joko du interesen araberako kolaborazio publiko-pribatu formulak arbuatuz. Lurralde prozesuaren egonkortzearekin bat, marko gero eta kontzentratuagoetarako pausoak eman beharko dira lurretik oina galdu gabe. Planifikazio estrategiko partekatuak ikuskera eta ertz asko integratu beharko baitu. Hernani Burujaben, egitasmo burujabeetatik mahai sektorial eta Burujabetzen forora egon da lehen artikulazioa. Epe motzean, aipatu planifikazio gaitasuna izateko anbizioa duen Burujabetzen Kontseilua sortzeko asmoa dago. Hemen udala, egitasmo burujabeak, herritar antolatutako eta auzo bozeramaileen ikuskerak artikulatu beharko dira epe ertaineko bide-orrietan.

Planifikazioa lurraldegintza berrirako metodo politikoa da. Hernaniko kasuari lotuz, lehenik agente ezberdinen arteko eztabaidak eraikitzen du eraldaketa markoa. Udalak eta herritar taldeak bere egin eta baliabideak jarriko dituzte estrategiatik eratortzen diren erronkei heltzeko. Lehen pausoa burujabetza eremuetan subjektu eta proiektuak eraikitzea izango da. Hauek izango dira estrategia gauzatuko dutenak eta lurraldean inpaktu izango dutenak. Beti ere kohesio markoei loturik baina autonomia maila handiz. Honela lurraldetik abiatzen den planifikazioaren baitan lurraldea



eraldatzen duten egitasmoak erditzen dira. Era berean, egitasmo hauek strategiaren partaide izango dira egonkortzen direnean. Metodo honen erreplikak sortzen ditu lurraldegintza berri baterako baldintza sozio-material eta kulturalak.

Planifikazio publiko-demokratikoak sistematika argi bat izan behar du. Gobernantzak ospatzen duen interes kudeaketa lausoa gaindituz, marko adostu bati loturiko sistematika zehatza eskatzen du planifikazioak. Marko estrategikoa konpartitzeko, gardentasuna bermatzeko eta planifikaziora gehitzen diren egitasmoen printzipioak sinkronizatzeke. Ikusi dugun bezala, Hernani Burujabek 4 faktore definitu ditu egitasmoaren parte izateko baldintza gisa. Egitasmoa burujabetza klabeetan proposatu behar da, lurraldea artikulatzeko baliagarria izan behar da (udal-herritar eta ehun ekonomikoa lotuz), dimentsio sozio-ekonomikoa argia izan behar du proposamenak (bizi baldintza materialen hobetzeari begira egon behar du), burujabetza



Planifikazioa: Lurraldegintza burujaberako metodo politikoa

gradua handitzera eraman gaitzakeen proiektuan lurreratu behar da eta aurrera egiteko baliabideen aurre-ikuspen bat beharrezkoa da (pertsonek, ekonomikoak, azpi-egiturak, etab.)

Planifikazioak bizitzaren aldeko ekonomia diseinatzeko bideak irekitzen ditu merkatuak eragiten dituen distortsioak gaindituz. Ze sektore hazi (zaintza edo elikadura kasu) eta zeintzuk des-hazi, modu koordinatu eta sozialean bideratzeko aukerak ematen ditu. Honekin, bizitza galbidera daramaten logika produktibista eta eko-zidak gainditzeko metodo nagusi bat eskaintzen du.

Honi loturik, modu batean edo bestean jazoko den des-hazkundearen arriskuak ekiditeko forma ere bada. Sektoreen garapena aurre-ikustearekin batera, desagertuko diren sektoreetako beharginak bir-kokatzeke estrategiak lantzea ahalbidetzen baitu. Azken hau funtsezkoa da. Azken hau ezinezkoa da errentagarritasunaren epe motzeko logika bere egin duen gobernantza ereduen baitan.

Trantsizio ekosoziala ezin da gobernantzaren marko ideologiko/praktikoan diseinatu. Utopia soziala ukatzen du, egunerokoari lotua da epe ertaineko diseinuak egitea oztopatuz eta pribatua lehenesten du herrikoiaurrean. Gainera, merkatu errentagarritasuna da honen neurgailua demokrazia kualitatiboaren aurrean eta honek hazkunde amaigabearen logika kapitalistatik ateratzea ezinezko egiten du. Ondorioz kudeaketa eredu hau ez da ondo moldatzen gure lurraldeetan integratu beharreko ekologia sozialeko politikekin.

Hernaniko esperientziaz garatzen hasi garen Planifikazio ereduak aldiz, bideak ireki ditzake gure belaunaldiari egotzi zaion zeregin erraldoi honi begira. Aztertu dira zenbait ezaugarri. Haatik asko dago kontzeptualizatu eta praktikatzeko, planifikazioa gure etorkizuna gobernatzeko metodo bilakatuko badugu. Oraingoan, testu hauetan lantzen ari garen lurraldegintza burujabearen metodo politiko gisa baliagarri dela ondorioztatu dugu ■



Epilogo

Aurkeztu berri dizuegun proposamena bukatu gabe dagoen mapa baten antzera irakurri behar da: nondik abiatzen den jakin arren, ezin esan daiteke nora ailegatuko den. Hasitako bideak helmuga duenik ere, kolektiboki erantzungo diren galderen eskutik ebatziko da. Bukatu gabe dagoen mapa horrek oraindik existitzen ez diren lurralde batzuen koordinadak eman dizkigu, lurraldeok, eraikitzeke dagoen geografia batean koka ditzagun. Gure pausuek irekitzen dituzten bideen arrastoa jarraituz ari gara marrazten bada, oraindik ere, bukatu gabe dagoen mapa hori.

Hernani Burujaberen baitan emandako pausuen bidez bukatu gabe dagoen mapa hori marrazten hasi gara, eta horrek, existitzen ez ziren lurralde horien geografia ehuntzen hasteko aukera eman digu; aipatu koordinadak puntu zehatzetan ezartzen hasteko parada eskaini digu: Lurraldea da bizitzaren eta kapitalaren arteko disputaren zelai, baino batez ere helburu: Kapitalaren-Lurraldeari Lurralde Burujabea kontrajarriko diogu. Burujabetza materialen gauzaren prozesua da gure agenda: guztiontzako bizitza duinak bermatuko dituen burujabetza ekonomiko-herritarra eraikiko dugu. Planifikazio ekonomiko eta territorial publiko-

herritarra da gure metodo politikoa: Gobernantza des-demokratizatzaileari ekonomiaren planifikazio demokratikoarekin erantzungo diogu. Eskala-aniztasuna da gure estrategia: Lurralde Burujabean hedapenak eskala anitzetan emango diren lurraldegintza prozesu planifikatuak beharko ditu


Bukatu gabe dirauten mapa horietan kokatzen hasi gara bada aipaturiko koordinadak; emandako pausuek irekitako bideak jarraituz ere, eraikitzen dihardugun geografia propioaren siluetak bereizten hasiak gara, eta gutxinaka, existitzen ez ziren lurralde horiek gero eta jende gehiagoren topagune izaten hasiak dira.


Horrela bada, eskuetan dauzkagun koordinadekin lurraldegintza burujaberantz bideratuko gaituzten mapak zirriborratzen ari gara. Orain arte modu espontaneo eta ez planifikatuan ernaldu diren ekimen burujabe horiek, modu planifikatu eta estrategikoan gauzatzen hasteko garaia da; egungo barbarie kapitalistari aurre egin nahi badiogu bederen, kapitalaren lurraldeekiko desertzio kolektiboa antolatuta, eta Lurralde Burujabeez osatutako geografia propioa eraikitzeke momentua da ■



Milesker

Hernani Burujabe egitasmoan parte hartzen duten erakunde eta herritar guztiei burujabetzen erronka hartzegatik.





BDS koop - 20304 IRUN
Wikitoki - 48003 BILBO
www.hiritik-at.eus